



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 28a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Gobernuako kideak bi administrazio kontseilu baino gehiagoko kide izaterari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, legez kanpoko substantziak atzematearren Azagrako zenbait “piperotan” egindako sarekadari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jaso ez duten dieta kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jasotako dieta kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako goi karguen dieten kontsignazio eta destinoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Merkataritza eta Industria Ganberaren eta Sodenaren arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruzkoa, zertan den jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, gaixoen historia klinikoaren inguruko hainbat auziri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Ubarmin Klinikako interbentzio kirurgikoekin lotutako zenbait auziri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, kirurgiako itxaronzerrendetako gaixoak zentro pribatuetara igortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Senda Viva naturaren parkeko inbertsio publikoei eta aurreikusitako bisitari kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, harzuriaren sektorea bizkortze aldera Legebiltzarrak onetsi zuen mozioa bete dadin eman diren urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

- Galdera, Erriberan abiadura handiko tren delata eta ebazteke dauden zenbait auziri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, “Eta jaietan, zer?” kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak apirilaren 5ean egindako agerraldiak sortutako zenbait zalantzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Onkologia Zentroa eraiki eta hornitzeko aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun laguntzako zentroetan geriatrak jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako diruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna bere departamentuan dagoen informazioan oinarriturik:

– Nafarroako Gobernuak, 2005eko uztailaren 4an eginiko bilkuran, 2005-2012 aldirako Nafarroako bide segurtasunaren estrategia onetsi zuen.

– Segurtasun eta babes zibileko langileak prestatzeko plana Segurtasun Eskolako prestakuntza planen barruan dago, eta azken hauek, bere aldetik, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren prestakuntza planen zati dira. Institutuko Gobernu Kontseiluak plan horiek onetsi zituen 2004, 2005 eta 2006 urteetarako, 2004ko urtarrilaren 8an, 2004ko abenduaren 2an eta 2005eko irailaren 20an, hurrenez hurren.

– Nafarroako Gobernuak, 2005eko ekainaren 6ko erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko errepide eta trenbideetan salgai arriskutsuak garraiatzean gerta litezkeen istripuen ondoriozko

larrialdiei aurre egiteko herri-babeserako plan berezia onetsi zuen.

– Neguan errepideak erabilgarri mantentzeko planak urtero eguneratzen dira; plan horiek Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kudeatzen eta koordinatzen dituzte.

Ekainaren 3ko 230/1996 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako herri babesaren lurraldeko plana onetsi zen, etengabe eguneratzen dena. 2004ko azaroaren 18an eginiko bilkuran eman zitzaion azken eguneratzearen berri Nafarroako Babes Zibileko Batzordeari; ondoren, planarekin lotura duten zerbitzu publiko operatibo guztiei jakinarazi zitzairen.

– Uholdei eta basoko suteei buruzko planak, hurrenez hurren, otsailaren 25eko 45/2002 Foru Dekretuaren eta abuztuaren 30eko 272/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren; Babes Zibilerako Zerbitzuak plan horiek etengabe berraztertzen ditu baliabide eskuragarrien katalogoa eguneratua izateko.

– Sektore kimikoko istripu larrietan kanpoko larrietan aplikatzeko tunel eta kanpoko larrialdiei buruzko plan bereziak eginga daude. Orain, Nafarroako Babes Zibileko Batzordeak horiei buruzko txostena egin beharko du, eta, ondoren, Babes Zibileko Batzorde Nazionalak homologatu eta Nafarroako gobernuak onetsi beharko ditu.

– Lurrikara eta aire-hondamendiei buruzko plan bereziak egiten ari dira.

– Nafarroako Foruzaingoaren eta estatuko segurtasun kidegoen eginkizunak zehazteko akordioak Foruzaingoaren plan zuzendariaren lanketa baldintzatuko du; bestalde, Nafarroako Larrialdietako Agentzia sortzeak Nafarroako Su-itzaltze eta

Salbamendu Zerbitzuaren plan zuzendariaren lan-keta baldintzatuko du.

– Joko makinen ikuskapen teknikoari eta ikuskizun publikoak ikuskatzeari dagokienez, Barne Zuzendaritza Nagusiaren barne ardura hori duten organoek egin beharreko ikuskapen lanak urtero planifikatzen dira.

– Une honetan, Babes Zibileko Zerbitzuak, eskura dituen baliabideekin, alertari eta alarmei buruzko informazio-sistema guztiak erabiltzeko gaitasuna du.

– Boluntario-lana kudeatzeko, kontrolatzeko eta finantzatzeko planaren balizko idazketari dagokienez, Babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko Foru Legeak plan horren helburuak betetzeko behar diren mekanismoak sartu zituen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko eta beste kontu batzuei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Lehena. Galderan esaten da Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, 2003ko irailaren 18ko agerraldian, “tributuak kontrolatzeko plan integrala” iragarri zuela eta hori ez da horrela; aitzitik, kontseilariak, 10. puntuan, “iruzur fiskalaren kontrako plana betetzea” iragarri zuen. Plan hori Foru Ogasuna osatzen duten arloen bitartez garatzen ari da eta 2002. urtearen amaieratik 2006. urtera bitartean betetzen ari da; hala ere, lan batzuk 2007. urtera arte luzatuko dira.

Halaber, legegintzaldi honetan, parlamentuko zenbait galderari erantzunez, iruzurraren kontrako borrokari eta haren emaitzei buruzko informazioa eman dugu; gai horri buruzko azken erantzuna iragan urteko ekainaren 29an eman genuen.

Bigarrena. Epe ertaineko plan ekonomikoari dagokionez, adierazi behar dugu 2004ko lehen hilabeteetan egin zela eta, Nafarroako Gobernuak, 2004ko uztailaren 5eko Erabakiaren bidez, “2004-

2007 aldirako epe ertaineko plan ekonomikoa” izenarekin onetsi zuela.

Hirugarrena. Telekomunikazioetako azpiegituren planari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, 2004ko abuztuaren 23an, “Nafarroako Foru Komunitatean banda zabaleko telekomunikazioetako azpiegiturak garatzeko plan zuzendaria” onetsi zuen 2003-2006 aldirako.

Laugarrena. Informazioaren gizartea sustatzeko planari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, 2005eko maiatzaren 2an, “informazioaren gizartea eta telekomunikazioak Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko bigarren plana” onetsi zuen.

Bosgarrena. Nafarroako Foru Komunitateko informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko enpresa-eskaintzaren arloko plan estrategikoari eta azterlanari dagokienez, legegintzaldi honetan garatu da, 2005eko ekainaren 28an jendaurrean aurkeztu zenean azaldutako ildoen arbera.

Seigarrena. Administrazioaren higieizinei buruzko planari dagokionez, 2003ko otsailaren 24ko Nafarroako Gobernuaren Erabakia legegintzaldi honetan garatzen ari dela adierazi behar dugu; erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernuak adierazi zuen, Ondare Zerbitzuak zenbait higiezin departamentu batzuen artean berregokitzeko egindako proposamenaren jakinaren gainean zegoela.

Azkenik, 2004ko maiatzaren 17an, Nafarroako Gobernuak “Nafarroako Gobernuko informazioaren eta komunikazioen segurtasunerako plana” onetsi zuela aipatu behar dugu; plan hori ez zegoen aurreikusita kontseilariak 2003ko irailaren 18an agerraldia egin zuenean.

Arestian esandakoa gorabehera, Gobernuko lehendakariak inbestidurako hitzaldian aipatu zuen administrazioa modernizatzeko plan integralari dagokionez, esan behar dugu 2002ko azaroaren 25eko Erabakiaren bidez “Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen modernizazio eta berrikuntza plana” aintzat hartu zela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Ingurumena

Natura Sarea:

a) Azaroaren 22ko 360/2004 Foru Aginduaren bidez, Orbaibarreko Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) erabiltzeko eta kudeatzeko plana onetsi zen.

b) Abuztuaren 22ko 105/2005 Foru Aginduaren bidez, Aldude mendiko Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) erabiltzeko eta kudeatzeko plana onetsi zen.

c) 2006an, Ultzamako, Ablitasko eta Urbasa-Andiako BILak erabiltzeko eta kudeatzeko planak onestea aurreikusita dago, kasuan kasuko foru dekretuen bidez

d) Belateko, Las Cañaseko, Irati-Orreagako eta Bertizko BILen planak parte-hartze prozesuan daude eta guztien idazketa oso aurreratuta dago.

e) Aralarko, Ugarrako, Aragoi ibaiko eta Larrondoko BILen planak idazten ari dira.

Bestalde, 2003ko urriaren 2ko agerraldian honakoa esan zen hitzez hitz: "arloan dela-eta eskudunak diren departamentuekin elkarlanean egiten diren jarduketak kudeatzaile diren departamentuei laguntza teknikoa emateko egiten dira". Horretaz gain, toki administrazioarekin batera egindako jarduketetatik hauek aipatu ziren: 2005ean egindako ibaien saneamendurako planaren berrikuspena eta hiri hondakin solidoen tratamendurako planaren berrikuspena eta egunertzea.

Toki Administrazioiko Departamentuak, NILSAREN bidez, ibaien saneamendurako planaren berrikuspena egin du 2007-2009 aldirako, eta aurreikuspenak plan nazional berrian sartuko dira.

Hiri hondakin solidoen planaren berrikuspenari dagokionez, Toki Administrazioiko Departamentuak hasi ditu ukitutako mankomunitateen parte-hartzearekin egin beharreko lanak, eta lan horietan Ingurumen Departamentuak ere parte hartzen du.

Plan horiekin zerikusirik izan gabe, uraren erabilera iraunkorrerako estrategia egin zen eta

Gobernuak lehen eta Parlamentuak ondoren onetsi zuten.

Lurraldearen antolamendu eta etxebizitza

Nafarroan, lurzorua eta etxebizitzaren gaineko plangintza estrategikoa Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legean agertu zen lehenengo aldiz; foru lege hori honakoen bidez garatu zen: Etxebizitza gaitako ekintza babesgarriak eta bizileku eraikinen sustapena arautzen duen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren bidez eta bizitokiak egiteko lurzorua erosteko lehiaketa ebatzi zuen 2006ko otsailaren 27ko Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren bidez.

Parlamentuak, 2005eko ekainaren 21ean, Nafarroako lurralde estrategia onetsi zuen; bestalde, urtarrilaren 11ko 11/2006 Foru Aginduaren bidez, lurraldearen antolamenduko planen prestaketa esleitu zen.

Parlamentuan behin eta berriro eta zehatz-mehatz jakitera eman dugunez, toki entitateei laguntza emateko bulegoak zabaltzeko plangintza eta hori arautuko duen foru dekretua tramitatzen ari dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Andrés Burguete Torres

Hezkuntza kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleei laguntza emateko plan integralari eta irakasleentzako prestakuntza planari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1. Aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleei laguntza emateko plana.

2003-2004 ikasturtean, Hezkuntza Departamentua gogor aritu zen lanean Hezkuntzaren kalitatea arautzen duen abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren esparru berriaren barruan Nafarroako hezkuntza araudia garatzeko.

Hezkuntzari buruzko lege berri baten iragarpenak (Hezkuntzaren Lege Organikoa, LOE) sortutako egoera berriaren aurrean, Hezkuntza Departa-

mentuak Nafarroako Foru Komunitateko aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleei laguntza emateko planaren zirriborroa bertan behera utzi behar izan zuen; izan ere, plan hori Hezkuntzaren kalitateari buruzko Lege Organikoa (LOCE) garatzeko zen. Aipatu planean gaitasun handiko ikasleen gurasoen elkarteak egindako ekarpenak kontuan hartu ziren.

Aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleei dagokienez, lege berriak eta aurrekoak zenbait desberdintasun dute:

– LOCEn, aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen taldean zeuden.

– LOEn, aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleak hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen taldean daude.

– LOEn gai horren inguruko bi artikulua labur daude; 77. artikuluan honakoa esaten du: “Gobernuak, autonomia erkidegoei kontsulta egin ondoren, aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleen hezkuntza sistemako maila bakoitzaren iraupena malgutzeko arauak ezarriko ditu, adina kontuan izan gabe”.

Hori dela eta, Hezkuntza Departamentua lege berriaren ondotik etorriko den erregelamendu bidezko garapenaren zain dago Nafarroako aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleei laguntza emateko araudia onesteko.

2. Irakasleen prestakuntza plana

Hezkuntza Departamentuak, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, ikasturte bakoitzerako irakasleen prestakuntza plana onesten du; plan hori egiten da departamentuaren lehentasunen arabera, eta ikastetxeetan eta irakasleen laguntza zentroetan atzemandako beharren arabera.

Ikasturte bakoitzeko prestakuntza planaren helburua honakoa da: irakasleei askotariko prestakuntza jarduerak eskaintzea, beren ezaguera zientifiko eta didaktikoak eguneratzeko, talde lana eta lan ohitura egokiak errazteko elkartrukatzea irakasleen lana hobetzeko beharrezkoa den laguntza emateko.

Legegintzaldia hasi zenetik honakoak dira aipatu prestakuntza planaren lehentasunezko jarduketako ildoak:

1. Prestakuntza prozesu bat planifikatzea, ikastetxeetako zuzendaritza taldeek zuzentzen dituz-

ten ikastetxeetako errealtatearen diagnostiko egokia egiteko eta hobekuntzarako tresna izanen den zuzendaritza-proiektu bat proposatu ahal izateko beharrezkoak diren ezagutzak, tresnak eta gaitasunak izan ditzaten bermatzeko.

2. Hezkuntza Departamentuaren ikastetxe eta hezkuntza zerbitzuetan Kalitatea Kudeatzeko Sistemak sustatzea.

3. Irakasleek zeharkako gaitasunak duten prestakuntza sustatzea, balioen arabera hezkuntza eta bakearen kultura bultzatzen dituen eskaintza baten bidez.

Helburu horiek guztiak lortzeko, 2005-2006 ikasturteko prestakuntza plana zortzi programatan egituratuta dago:

– Kalitatea kudeatzeko eta zuzendaritza taldeak prestatzeko programa

– Giza dimentsioa programa

– Haur Hezkuntzako programa

– Lehen Hezkuntzako programa (orotariko irakasle eta irakasle espezialistentzat)

– Bigarren Hezkuntzarako programa (batxilergo eta DBHko arlo eta ikasgai guztietarako)

– Aniztasunari eta kultura-aniztasunari arreta emateari buruzko programa (hezkuntza premia bereziak, kultura-aniztasuna eta etengabeko prestakuntza)

– Beste programa batzuk: Teknologia berriak, eskola-liburutegiak, Europako programak, arrisku-erregulazioa hartzea eta lan osasuna, euskararen irakaskuntza, kontserbatorioa, musika eskolak, dantza eskolak, hizkuntza eskola ofizialak, eta eskolako orientabidea.

– Lanbide Heziketako programa

2005-2006 ikasturteko prestakuntza planak zenbait sindikaturen iradokizunak aintzat hartu ditu, bereziki gai hauetan: lan osasunean eta lan arriskuei aurrea hartzean, berdintasunean, eskolako bizikidetzan eta prestakuntza afektibo-sexualean.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Vianako Printzea Erakundea- Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean 203ko irailaren 23ko agerraldian iragarri ziren Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak abian jarritako jarduketarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

2003ko irailaren 23an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak agerraldia egin zuen Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean VI. legegintzaldian bere eskumenen esparruan garatu beharreko proiektu eta jarduketan berri emateko.

Iragarritako jarduketa ugariren artean galderan aipatutakoak daude eta horiei buruz honakoa eman nahi dugu jakitera:

Turismo arloan, Kultura eta Turismo Departamentuak ondoko programa eta planak jarri ditu abian:

Turismoaren plan estrategikoaren helburu nagusia da "Nafarroa helmuga turistiko gisa sendotzea eta erkidegoko produktu eta baliabide turistikoak antolatzea".

Plan hori, batez ere, garapen plan bat da (hiri-turismoa, landa turismoa, kultur turismoa eta abar) turismoari ikuspegi askotatik ekiten diona, ekintza desberdin eta era berean osagarriak proposatuz. Plan hori, lehentasunez, produktuak sortzera eta eskaintza antolatzera zuzenduko da, eta, horren ondotik, erkidegoa helburu turistiko gisa sustatzeko jarraibideak eratuko ditu.

Plan estrategikoaren funtsezko helburuak honakoak dira:

1. Nafarroa kalitatezko helburu turistiko gisa eratzea.

2. Turismo enpresen lehiakortasuna hobetzea. Sektore turistikoa profesionalizatzea eta duin bihurtzea.

3. Nafarroa berriazko eskaintzaren bidez merkatu turistikoan sartzea. Produktu turistiko berriak sortzea.

4. Turismoari zuzendutako baliabide tekniko eta ekonomikoak nahiz giza baliabideak erabiltzeko eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.

5. Argibide turistikoen sistema hobetzea eta koordinatzea.

6. Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko politikak sendotzea.

Plan Estrategikoa betetzeari begira, Kultura eta Turismo Departamentuak hainbat sustatze- eta garatze-programa jarri ditu abian, besteak beste hauek:

Turismo ostatu eta produktuen sorrera laguntzeko programak; jarduketa ildoak ondokoak dira:

- Enpresa txiki eta ertainentzako deialdia, ostatu eta zerbitzu osagarriak sortzeko.
- Enpresa txiki eta ertainentzako deialdia, kalitate sistemak ezartzeko.
- Toki entitate eta partzuergoentzako deialdia, inbertsio handietarako.
- Enpresa txiki eta ertainentzako deialdia, bitartekaritza eta zerbitzuetarako.
- Kalitate ziurtagirirako deialdia.
- Toki entitate, partzuergo eta elkarteentzako deialdia, sustapen ekintzetarako.

Kalitate programak. Kultura eta Turismo Departamentua lanean ari da ondoko turismorako kalitate planetan:

- Nafarroako mendialdea helmuga kalitate plana.
- "Nafarroako ardoaren ibilbidea" produktu turistikoaren kalitate plana.
- Iruñeko jarduketa turistikoaren plana.
- Iratiko oihaneko erabilera, kudeaketa eta ustiapen plana.

Seinaleei buruzko plana. Turismo arloko beste beharretako bat turismo-seinaleak hobetzea da, hala errepide sarean nola interes turistikoko monumentu eta baliabide naturalak dauden tokietan.

2005ean, Kultura eta Turismo Departamentuak, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarekin elkarlanean, seinaleak jartzeko programa bati hasiera eman zion; helburua da Nafarroa osoan turismoari buruzko seinaleztapen homogeneo eta bateratua hainbat fasetan burutzea.

Prestakuntza plana. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko funtsezkoa da sektorearen prestakuntza profesionala. Horretarako, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean eta Tuñón Asociadosen aholkularitza teknikoarekin, sektorean prestakuntzak –bai prestakuntza arautua bai etengabekoa eta lanerako prestakuntza– duen egoera aztertu da eta 2005-2007 aldirako turismoari buruzko prestakuntzarako ekintza plan bat egin da.

Marketin plan integrala. Kultura eta Turismo Departamentua turismoari buruzko marketin plan integrala prestatzen ari da. Plan horretan egoeraren diagnostikoa egiten da, Nafarroako baliabide turistikoak eta turista kopurua baloratzen dira, eta Nafarroak bisitariei eskaintzen dizkien produktuekin, Nafarroako irudiarekin eta komunikazio politikarekin programa operazional bat ezartzen da.

Produktu turistikoari dagokionez, ondoko produktuekin gama berri bat sortu da:

- Nafarroa, lur anitza
- Lau urtarotako erresuma
- Opor lasaiak
- Kultura naturan
- Nafarroa naturala da
- Kongresuak, konbentzioak eta pizgarriak
- Nafarroa landa turismoa da
- Sanferminak
- Santiago bidea eta Pirinioa.

Zehazki, marketin plan horretan sustapeneko 50 ekintza inguru egin behar direla ezartzen da.

Kulturari dagokionez, askotariko proiektu eta jarduketak egiten ari dira, bai galderan aipatzen diren arlo espezifikoetan bai ondare historikoaren, artxibo eta dokumentu ondarean eta kultur ekintzaren arloetan. Hala ere, galderan aipatzen diren jarduketa plan zehatzei dagokionez, honakoa eman nahi dugu jakitera:

Ondare arkeologikoari dagokionez, Kultura Zuzendaritza Nagusiak Olcarium S.L.ri esleitu dio Santa Crizko plan zuzendaria egitea azaroaren 10eko 509/2005 Ebazpenaren bidez. Aurreikusita dago 2007ko azaroan bukatzea.

2005ean, kanpo indusketak, jasotze topografiakoak eta inguruei buruz dagoen informazio guztia- ren bilketa egin dira. 2006an, plan zuzendaria gauzatzeko beharrezkoak diren zundaketa arkeologikoak egitea aurreikusita dago; plana, dagoeneko esan dugunez, 2007an gauzatzea aurreikusten da.

La Custodia izeneko aztarnategiaren plan zuzendariari dagokionez, une honetan, Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikariak plana idazteko oinarri teknikoak prestatzen ari dira; hasiera 2006. urterako aurreikusita dago eta amaiera 2007. urterako.

Bestalde, liburutegi publikoari dagokionez, Nafarroan, autonomia erkidego gutxitan bezala, liburutegi publikoen sistemaren antolakuntza eta

finantzaketa, batez ere, erkidegoko gobernuaren ardura dira; Espainiako beste lekuetan, berriz, liburutegi kudeaketa udalen ardura da. Ardura hori izateak erkidego osoan politika orokorra eta koherentea ezartzea ahalbidetzen dio; hori dela eta, liburutegi publikoen sistemari dagokionez, Nafarroa estatuko abangoardian dago.

32/2002 Foru Legea betetzeko, Liburutegi Zerbitzua lanean ari da Nafarroako irakurketa publikoaren mapa eta zerbitzu zorrotza prestatzen, liburutegi eskaintzen duten kultur zerbitzua antolatu eta eraginkortasunez planifikatzeko ezinbesteko tresna dela jabeturik.

Legegintzaldi honen hasieratik teknikarien lana Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren gaur egungo egoerari buruzko informazioa bildu eta sistematizatzera bideratu da; ondoren, inguruaren aukerei eta mehatxuei buruz eta liburutegi antolakuntzak dituen alderdi indartsu eta ahulei buruz diagnosi zorrotza egin ahal izateko.

Hurrengo fasea, irakurketa mapa zehaztekoa izanen da, Liburutegi Foru Legeak ezarritakoari jarraikiz.

Mapa hori garrantzi handiko proiektua da, epe ertainean liburutegiaren politika eta nondik-norakoak ezarriko dituen prospektiba-lana baita.

Nafarroako museoekin zerikusia duten galderei dagokionez, Nafarroako Gobernua ondoko museo- en jabe da: Nafarroako Museoa, "Julio Caro Baroja" Nafarroako Museo Etnologikoa eta Karlismoaren Museoa.

Nafarroako beste museo guztiak, edo udalenak edo titulartasun pribatukoak dira (entitateak edo pertsona fisikoak); museo horiekin ere babeste- edo/eta sustatze-ekintzak egiten dira, beti ere museoek duten garrantzia eta helburuen arabera, edo beren funtsek duten interes historiko eta artistikoaren arabera.

Aldez aurretik, museoaren panorama argitzeko asmoz, museoari laguntza ekonomikoa emateko sistema berri bat sortu da; beraz, 2005. urtetik museoari dirulaguntza eman zaie funtzionamendu- ko ohiko gastuetarako eta azpiegiturretan inbertit- zeko.

Hori dela eta, 2005an beste museoari emanda- ko dirulaguntzak 2004koak baino % 42 gehiago izan dira. 2005ean, 18.180 euroko dirulaguntza eman da ohiko gastuetarako eta 130.200 euro eman dira inbertsioetarako.

Nafarroako museoaren antolakuntzan eman beharreko hurrengo urratsa Museoari buruzko Foru Lege proiektua da; Vianako Printzea Erakunde-

Kultura eta Turismo Departamentuko Museoen Zerbitzuak eta zerbitzu juridikoak foru lege proiektu horren zirriborroan ari dira lanean; zirriborroa 2006ko lehen bilkuraldia bukatu baino lehen Nafarroako Parlamentura bidaltzea aurreikusita dago.

Arau horrek 2003ko irailaren 23ko agerraldian aipatutako museoak eta bilduma iraunkorrak antolatzeko beharrezkoa den lege-esparru berria osatuko du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 17an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Osasun kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko eta beste kontu batzuei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

2005-2010 urteetarako osasun plana

Osasunari buruzko inkesta bukatu ondoren, gaur egun osasun plan berria egiten ari da. Plan hori 2005ko urrian abiatu zen, ondoko helburuak zituzten lantaldeak osatu zirenean:

- Plana diseinatzea
- Lantalde bakoitzean lehentasunak ezartzea
- Lehentasunei buruz erabakitzea
- Lantalde bakoitzak planari buruzko proposamenak azaltzea
- Plana osatzea eta arlo sozial eta politikoan hedatzea
- Nafarroako Gobernuak onartzea eta Parlamentura bidaltzea.

Osasun kontseilariak, urriaren 28ko 101/2005 Foru Aginduaren bidez, 2006. urtetik aurrera garatu beharreko osasun plan berriaren izaera estrategikoa ezarri zuen, eta 5 ildo estrategiko zehaztu zituen:

- Osasun kolektiboaren prebentzioa eta azalerraten diren osasun arazoak.

- Prozesuaren bidezko zainketak adostutako praktika klinikoen gidan arabera eta ebidentzian oinarrituta.

- Kudeaketa eta antolakuntzaren garapena eraginkortasunera eta erantzunkidetasunera zuzenduta.

- Ekitatera eta herritarraren asebetetzera zuzendutako ekintzen orientazioa.

- Osasun laguntzan aplikatzeko berrikuntza teknologikoa eta informazio sistemak.

Foru agindu beraren bidez, osasun planaren garapen estrategikorako batzordea osatu zen; zuzendari nagusia batzordeburua da, Osasun Plangintza eta Ebaluazio Atalak koordinatzen du eta aipatu ildo estrategikoetako arduradunak batzordekideak dira.

Lantalde teknikoaren sorrera osasun zuzendari nagusiaren azaroaren 17ko 1792/2005 Ebazpenaren bidez egin zen; ebazpen hori, abenduaren 2ko 1875/2005 Ebazpenaren bidez aldatu zen, kide berriak sartzeko.

Kalitate plana

Duela gutxi, Osasun eta Kontsumo Ministerioak osasun sistema nazionalaren kalitate plana argitaratu du. Gaur egun, plan hori berrikusten eta Nafarroako ezaugarrietara egokitzen ari gara.

Plan horrek 6 ildo estrategiko ditu:

- Osasuna babestea eta sustatzea
- Gaixotasunari aurrea hartzea
- Osasun arloan gertatzen diren bidegabekeriak murriztea
- Osasun arloko giza baliabideak
- Zerbitzuen kudeaketa eta antolaketa garatzea
- Ebidentzian oinarritutako erabaki klinikoak hartzea.

Arlo soziosanitarioko jarduera guztiak Gizarte Ongizate Departamentuak zuzentzen ditu Osasun Departamentuarekin lankidetzan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko eta beste kontu batzuei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Aldez aurretik, esan behar dut ondoko erantzuna Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuarekin lotutako planei buruz dela, ezin baita bestela izan. Hona hemen plan horiek: Zaharrentzako sustapen eta laguntza plana (2. plan gerontologikoa); ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntza integrala emateko plana; gizarte zailtasunak dauzkaten haur eta nerabeei laguntza emateko plana (plan hori aipatu da bai galderan bai Gobernuko lehendakariaren inbestidurako hitzaldian, adingabe eta nerabeentzako planaz hitz egitean); kirolaren plan estrategikoa; kirol azpiegituren plana (2005-2007); Nafarroako Emakumearen Institutuaren plan estrategikoa, eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako plana. Galdegileak "etxerik gabeei laguntzeko plana" deitu duenari buruz, honakoa esan behar dugu: 2004ko apirilaren 6ko agerraldian, kontseilari honek departamentuaren jarduketa-lerroak legegintzaldirako azaldu zituen eta, bilkura egunkarian ikus daitekeenez, bazterketa sozialaren aurkako planaren barneko jarduketa bai aipatu zuen; plan hori aurreko legegintzaldian onetsi zen eta gero ere aipatu dugu. Azkenik, galdegileak "gazteen etxebizitzarako plan integrala" deitutakoari buruz esan behar da ez dela halakorik prestatu eta ez dagoela aurreikusita; izan ere, aipatutako agerraldian, gazteek etxebizitza eskura dezaten errazteko neurriak hartuko direla azaldu nuen, Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin batera.

Ondoren, egindako galdera guztiei batera erantzuten zaie.

1. Arestian aipaturiko planetatik zenbat egin eta onetsi dira? Plan bakoitza onetsi duen organoa eta zein egunetan onetsi den jakin nahi dugu.

2. Onetsi ez diren planetatik, zenbat lantzen ari dira? Lan horretan ari den organoa, noiz bukatuko duen eta Nafarroako Parlamentura igorriko ote duen jakin nahi dugu;

3. Onetsi ez diren planetatik, zenbatetan erabaki da ez egitea? Zein arrazoiengatik?

4. Kasua bada, legegintzaldiaren hasieran aurreikusi edo iragarri ez ziren zenbat plan landu

eta onetsi ditu foru erkidegoko administrazioak? Lan horretaz arduratu den organoa eta hura noiz onetsi den aipatzea nahi dugu.

Zaharrentzako sustapen eta laguntza planari dagokionez, diagnostiko fasea dagoeneko egin da, eta ondoko alderdi hauek aztertu dira:

1. Zaharrei buruzko politika sozialaren arloan, nazioko eta nazioarteko agintaritzak eskudunaren gaur egungo erreferentziak aztertu dira arlo honetako joera nagusiak ezagutzeko.

2. Nafarroako adineko biztanleei buruzko alderdi kualitatiboak eta kuantitatiboak, aztertu dira, hain zuzen, datu demografikoak eta ezaugarri sozialak, bizikidetzak, osasun egoera eta funtzio-gaitasuna, lanaren bidezko jarduerak, kultura jarduerak, hezkuntza jarduerak, aisialdia, gizartearen parte-hartzea...

3. Honakoak ere aztertu dira: araudi erregulazionala, antolakuntza, errekurtsioen tipologia, zainketa eskaintza, kudeaketa, kostuak, erabilpen tasak eta estaldura-ratio konparatuak.

4. Giza baliabideak aztertu dira, bai profesionalak, historikoak eta berriak, identifikatzeari dagokionez, bai prestakuntzari dagokionez (formala edo arautua, gradu ondokoa eta etengabeko prestakuntza).

Diagnostikoak Nafarroako adineko biztanleen argazki bat erakusten du: baliabide eta zerbitzuen eskaintza, sistemaren antolaketa, araudi erregulazionalaren azterketa eta abar; hau da, errealitatea eskaintzaren ikuspegitik erakusten du.

Diagnostiko horretan, adineko biztanleek eta beren familiakoek laguntza soziala jasotzeko eta sustatzeko dituzten beharrezko buruzko benetako eskaeraren ikuspegitik egindako azterketa falta da. Besteak beste, azterketa falta honako gaitan azaltzen da: baliabidetan, laguntzan, zainketen jarraipenean eta laguntza-beharretan, bakardadean, aisialdian eta zerbitzuen balorazioan; une hauetan, diagnostikoa adineko pertsonen eta beren familiakoen eskaera sozialari buruzko azterketa baten bidez zabaltzen ari da.

Datorren hilabeteetan gure adinekoen eta bere beharrezko benetako egoeraren argazkia iritzi publikoari aurkeztuko zaio, eta horrek "plan" berria zuzenduko duten ildo estrategikoak eta jarduketa-neurriak ezartzeko oinarri gisa balioko du.

Aurreikusita dago diagnostikoa bukatu orduko planaren bigarren fasea hastea; halaber, aurreikusita dago legegintzaldi hau bukatu baino lehen plana amaituta egotea Nafarroako Parlamentura bidaltzeko.

Ezgaitasunak dituzten pertsoneri arreta integrala emateko planari buruz egindako dokumentua berrikusten ari da amaierako testua bukatzeko. Gizarte Ongizate Zuzendaritza Nagusiko Plangintza, Kalitatearen Ebaluazio eta Ikuskapen Zerbitzuak aurreikusita du proiektua Nafarroako Gobernuari ekainean bidaltzea, horrek onetsi ondoren Parlamentura bidaltzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko bazterketa sozialaren aurkako planari dagokionez, 2005eko abenduaren 31n indarra galdu zuela kontuan izanik, aipatu planaren emaitzen ebaluazioa egin behar izan genuen planean bildutako helburuak eta neurriak bete ziren baloratzeko eta planak bazterketa egoerak gainditzeko balio izan duen ikusteko. Bestalde, beharrezkoa da bazterketaren diagnostiko bat egitea, hurrengo urteetarako esku-hartzeko ildoak definitzea ahalbidetuko duena. Lan hori Datlan aholkularitza-enpresari esleitu zitzaion; enpresa horrek ez du zerikusirik lehen plana egin zuen ikerketa taldearekin, ezta Nafarroako Gobernuarekin ere. Aurreikusita dago ebaluazio horren sintesia datozen hilabeteetan argitaratzea.

Ebaluazio hori hasierako diagnostiko bat da, eta beraz, bigarren. plana egiteko abiapuntua izanen da; plan hori urte honetako bigarren seihilekian egiten hasiko da.

2002an onetsitako arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko planak 2006. urtea du jarduteko muga; beraz, oraindik exekuzio fasean dago. Plana alde zuzeneko diagnostiko batetik abiatu zen (aurre-ebaluazio bat); tarteko ebaluazioa 2004. urteko amaieran egin eta 2005eko udaberrian aurkeztu zen eta, azkenik, planak indarra galtzean aurreikusita dago azken ebaluazioa egitea, hau da, 2007an. Planaren betetzeak aurrera jarraitzen du eta aipatzekoa da onartu berri den Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2005 Foru Legea plan horren 15. programatik abiatu dela.

Kirolaren plan estrategikoari buruz, adierazi behar dut egiten ari dela eta legegintzaldi hau amaitu baino lehen aurkeztuko dela.

Kirol azpiegituren plana (2005-2007), aurrekontuetako urritasunagatik, ezin izan da bete. Horren ordez, urteko deialdia batzuk egin dira, plan horretan aurreikusita zeuden ekintzak gauzatzen saiatzeko.

Nafarroako Emakumearen Institutuaren plan estrategikoa 2004. eta 2005. urteetan egin zen. Ondoren, 2005eko ekainaren 29an, erakunde autonomo horren gobernu kontseiluak onetsi zuen.

Azkenik, 2006ko martxoaren 6an, Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana (2006-2010) onetsi zuen; une hauetan, plana Parlamentuko tramitean dago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko lehendakariak inbestidurako hitzaldian iragarritako planei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

– Arestian aipaturiko planetatik zenbat egin eta onetsi dira? Plan bakoitza onetsi duen organoa eta zein egunetan onetsi den jakin nahi dugu.

– Onetsi ez diren planetatik, zenbat lantzen ari dira? Lan horretan ari den organoa, noiz bukatuko duen eta Nafarroako Parlamentura igorriko ote duen jakin nahi dugu;

– Onetsi ez diren planetatik, zenbatetan erabaki da ez egitea? Zein arrazoiengatik?

– Kasua bada, legegintzaldiaren hasieran aurreikusi edo iragarri ez ziren zenbat plan landu eta onetsi ditu erkidegoko administrazioak? Lan horretaz arduratu den organoa eta hura noiz onetsi den aipatzea nahi dugu.

Erantzuna:

A) Legebiltzarreko Osoko Bilkuran 2003ko ekainaren 25ean eginiko inbestidurako hitzaldian, Nafarroako Gobernuko lehendakariak honako plan hauek iragarri zituen:

Segurtasun plan integrala:

Nafarroako Gobernuak, 2005eko uztailaren 4an, Nafarroako bide segurtasunaren estrategia onetsi zuen.

B) Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren programa eta ekimenen ildo politikoa azaltzeko 2004ko martxoaren 31n egindako agerraldian, Alvaro Miranda Simavilla kontseilariak iragarritako planak:

Lizarraldeko errepideak berritzeko jarduketa:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren 2004-2007 aldirako programa eta ekimenak azaltzeko 2004ko martxoaren 31n egindako agerraldian, kontseilariak Donejakue bideko A-12 autobiarren inguruko errepideak berritzeko konpromisoa iragarri zuen; asmo hori programatutakoaren arabera gauzatzen ari da, eta gaur egun, ondoko errepideen berrikuntza eta hobekuntza bukatuta dago:

NA-7171, Lerateko sarbidea (7,16 km.)

NA-7123, Allotz-Allozko Monasterioa (1,36 km.)

NA-122, Lizarra-Allo (4,50 km.)

NA-7400, Olexuako gaina-Legaria (4,70 km.)

NA-7400, Urbiolako saihebidia-Olexuako gaina (3,40 km.)

NA-6310, Mendabia-Elizagorria (6,22 km.)

NA-6362, El Bustoko sarbidea (1,00 km.)

NA-7206 eta NA-7253, Bargotako sarbidea (5,00 km.)

Aurreikusitako beste jarduketa guztiak programatutakoaren arabera aurrera doaz.

Seinaleztapen turistikoaren plana:

Plan horren lehenengo fasea 2005eko lehen seihilekoan egin da, Kultura eta Turismo Departamentuarekin elkarlanean. Fase horrek Pirinioko A-21 autobidearen eraginpeko Nafarroako ekialdea, Donejakue bideko A-12 autobiarren eraginpeko mendebaldea, eta ipar-ekialdea bere barne hartzen ditu. Lanak irailaren 6ko 798/2005 Ebazpenaren bidez esleitu ziren eta seinaleak 2005ean ezarri ziren.

Nafarroako gainerako eremuak hartzen dituen planaren bigarren fasea prestatzen ari da, 2006ko ekitaldi honetan ezartzeko asmoz.

2002-2009 Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendaria:

Galderak aipatzen duen errepideei buruzko plana ez zen inbestidurako hitzaldian iragarri, dagoeneko egin eta onetsita zegoelako.

Iruñerriko hiri garraioaren II. plana 2006-2009 aldirako:

Nafarroako Gobernuak, 2005eko abenduaren 19an egindako bilkuran, Iruñerriko hiri garraioaren II. plana onetsi zuen; plan horretan, hiri garraioaren arloan egin beharreko jarduketak eta garraioaren finantzaketa sistema era zehatzean ezartzen dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko eta beste kontu batzuei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

2003ko urriaren 1ean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak iragarri zuen departamentuak Nafarroa jatorrizko deituraren marketinari eta komunikazioari buruzko plan estrategiko bat eginen zuela, bai eta landa garapenari buruzko plan bat ere.

1- Nafarroa jatorrizko deituraren marketinari eta komunikazioari buruzko plan estrategikoa egiteari dagokionez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan garatu behar diren ekimenen berri emateko 2003ko urriaren 1ean egindako agerraldian, kontseilariak ez zuen aipatu Nafarroa jatorrizko deituraren marketinari eta komunikazioari buruzko plan estrategiko bat egin behar zuenik, aldiz, honakoa esan zuen hitzez hitz:

“Nafarroako Gobernuak, sektoreak une honetan behar duen sostenguaz jabeturik, “Nafarroa jatorrizko deituraren marketinari eta komunikazioari buruzko plan estrategikoa” gauzatzeko hitzarmenaren bidez garatutako hainbat ekintzetan parte hartzeko konpromisoa hartu du. Ekintza horiek lau urtetan zehar garatuko dira; ekintza horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko behar diren mekanismoak aurreikusita daude”.

Hortaz, agerraldian hitzarmen bat dagoela aipatu zen; hitzarmen hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta “Nafarroa” jatorrizko deituraren kontseilu arau-emaileak sinatu zuten 2002ko apirilean, Nafarroa jatorrizko deituraren marketinari eta komunikazioari buruzko plan estrategikoa egiteko. Plan horren ekintzak gauzatzen ari ziren eta beharrezkoa zen horiekin jarraitzea.

Hala ere, aukera aprobetxatu nahi dut Nafarroako nekazaritzaren plan estrategikoa bukatu berri dela jakinarazteko; plan horrek sektore guztiak aztertzen ditu, ardoarena barne, eta nekazaritza

sektoreak, baita Parlamentuko Nekazaritza Batzordeak ere, horren berri etengabe izan dutela; kontseilariak berak azalduko du plan hori aipatu batzordean, heldu den apirilaren 26an.

2.- Landa garapenari buruzko planari dagokionez, aipatu agerraldian honakoa esan zuen:

“Departamentuak badaki egungo landa garapenari buruzko planaren babesean egin diren ekintzek duten garrantzia; plana 2006. urtera artekoa da. Une honetatik aurrera, oraingo planean antzemandako hutsuneak zuzentzeko lanean hasiko gara 2005. urterako plan berri bat prest izateko asmoz.

Gaur egun indarrean dagoen plana 2000-2006 aldiari dagokiona da; une honetan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua Nafarroako 2007-2013 aldirako landa garapenari buruzko plan estrategikoa prestatzen ari da; halaber, nazioko plan estrategikoa eta marko nazional eta ikuspegi finantzarioa bezalako alderdiei buruz nazioko eta Europako instantziek hartuko dituzten erabakien zain dago. Plan hori Europako Batzordeko organo eskudunek onetsi beharko dute.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakiteko eta beste kontu batzuei buruz. Hona Nafarroako Gobernuo Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuo lehendakariak 2003ko ekainaren 25ean Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak 2003ko urriaren 2an egin zuen legegintzaldi hasierako agerraldian departamentu horri buruz iragarri zituzten planei dagokienez, ondokoa jakinarazi nahi dugu:

2004-2007 URTEETARAKO NAFARROAKO PLAN TEKNOLOGIKOA

Nafarroako Gobernuak prestatu eta 2003ko apirilaren 14ko bilkuran onetsi zuen.

Planaren lehen biurteko balantzearen barruan 325 proiektu, enpresek inbertitutako 222,6 milioi euro eta Nafarroako Gobernuak laguntzatan emandako 33,8 milioi euro sartzten dira. Plan hori 2007ko abenduaren 31n bukatutzat emanen da.

NAFARROAKO MERKATARITZARAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Industria eta Merkataritza zuzendari nagusiak, lehiaketa egin ondoren, INSTITUT CERDA kontratatu zuen Nafarroako merkataritzako plan estrategikoa egiteko, 1013/2004 Ebazpenaren bidez. Horretarako sortutako jarraipen batzordeak baliozkotzat eman ondoren eta ukitutako Nafarroako Gobernuo beste departamentuei azaldu ondoren, 2005eko uztailaren 1eko bilkuran Nafarroako Txikizkako Merkataritzarako Kontseilu Aholku-emaileari aurkeztu zitzaion.

NAFARROAKO SALTOKI HANDIEN LURRALDE EREDUA

Nafarroako merkataritza arautzen duen 17/2001 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, 2003an Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin sinatutako lankidetzaren bidez ezarritako Nafarroako saltoki handien lurralde ereduaren datuen eguneratzea Nafarroako Txikizkako Merkataritzarako Kontseilu Aholku-emaileari aurkeztu zitzaion, 2003ko azaroaren 28ko bilkuran.

Halaber, 2004ko martxoaren 29ko 150/2004 Foru Dekretuaren bidez, Gobernuak, Nafarroako Saltoki Handien Lurralde Ereduen erregelamendua onetsi zuen eta 2004ko apirilaren 21eko 48. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

NAFARROAKO ENPRESAK NAZIOARTERA ATERATZEKO PLANA

Plan horren helburua da Nafarroatik kanpo promozioa egiteko laguntza-deialdiak egokitzeko behar den informazioa ematea.

Hori dela eta, honako azterlan hauek egin dira:

– Industria eta Merkataritza zuzendari nagusiak, 2468/2004 Ebazpenaren bidez, kanpoko merkatuen hautespen sektorialari buruzko azterlan bat egitea kontratatu zuen NUParekin.

– Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin sinatutako lankidetzaren bidez, esportatzeko gaitasunari diagnostikatzeko azterlanak egin dira. 2004an, esportatzen ez duten edo gutxi esportatzen duten enpresei buruzko azterlan multisektoriala egin zen. 2005ean, bi azterlan sektorial egin dira, bata eraikuntzako materialen sektoreari buruz eta bestea aholkularitza eta enpresa-zerbitzuei buruz.

Departamentuaren urteko dirulaguntza deialdiak azterlan horietan lortutako informazioaren araberak egokitu dira.

NAFARROAKO ENERGIA PLANA

Irailaren 30eko 91/2004 Foru Aginduaren bidez, energia plana egiteko laguntza teknikoak esleitu zitzaion IDOM Zaragoza, S.A., eta IDOM Servicios Integrados, S.A. enpresek osatutako enpresen aldi baterako batasunari.

Gaur egun, ingurumen ebaluazio estrategikoa egitea baino ez da falta, eta heldu den 2006ko ekainaren 14an amaitzea aurreikusita dago. Ondoren, Nafarroako Gobernuak bilkurara eramanen da onetsia izan dadin, ziurrenik 2006ko ekainean.

BIONAVARRA PROIEKTUA

Joan den 2006ko urtarrilaren 26an aurkeztu zen, eta 2007. urtera arte 1,5 milioi euroko inbertsioa ekarriko du; proiektuaren helburua da industria bioteknologikoa dinamizatzea, Nafarroako industria bilbea dibertsifikatzeari begira.

ZERBITZUEN SEKTOREA GARATZEKO PLANA

2006ko otsailaren 17an aurkeztu zen; planak, erregioko ekonomiaren erreferentziazko zortzi alorretatik abiatuta, garatzeko aukera duten eremuak identifikatzeko asmoa du, betiere planean aurreikusitako hiru helburu estrategikoak kontuan izanik: balio erantsiaren sorrera, nazioartera ateratzeko gaitasuna eta gure ekonomiaren lehiakortasunaren hobekuntza.

NAFARROAKO III. ENPLEGU PLANA 2005-2007

Nafarroako Gobernuak 2004ko urriaren 18an eginiko bilkuran onetsi zen, eta 2004ko urriaren 20an, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta UGT eta CCOO sindikatuek batera sinatu zuten.

ICARO PROIEKTUA

Nafarroako Gobernuak sustatu eta 2005eko urriaren 3an eginiko bilkuran onetsi zuen. Europar Batasunak proiektua diruz lagundu zuen. 2005eko azaroaren 1etik 2007ko urriaren 31ra bitartean garatuko da. Proiektu horrek Nafarroako automobilaren sektorearen lehiakortasuna eta enplegua bultzatuko dituen etorkizuneko estrategia definitzeko asmoa du.

KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN DEFENTSARI BURUZKO FORU LEGE PROIEKTUA

Nafarroako Gobernuaren 2006ko otsailaren 13ko bilkuran onetsi zen eta Nafarroako Parlamentura dagoeneko bidali da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 19an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Gobernuko kideak bi administrazio kontseilu baino gehiagoko kide izaterari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Gobernuko kideak bi administrazio kontseilu baino gehiagoko kide izaterari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du gobernuko kideak bi administrazio kontseilu baino gehiagoko kide izateari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Ba al da bi sozietate publikotako baino gehiagoko administrazio kontseiluetako kide den Nafarroako Gobernuko kiderik edo Foru Komunitateko administrazio goi kargurik?

Bai. Haien zerrenda erantsi dut.

Hala bada, kasuan kasuko ordainsariak sartzan al dira aurreko xedapenean aipatzen den kontuan?

Ez, zeren eta goi karguek uko egiten baitiote bi kontseilu baino gehiagotik dirua kobratzeari; horrenbestez, sozietate publikoek ez dituzte ordainketa horiek egiten.

2.- Kontu horretan ba al da bestelako ordainsaririk, beste arrazoi batzuk direla medio? Hala bada, azaldu zer kasutan eta zer goi karguei dagozkien.

3.- Zer dirusarrera egin dira kontu horretan, hala bada, 2003, 2004 eta 2005. urteetan? Kasu bada, dirusarrerak egin dituzten sozietateen zerrenda nahi dut, eta zer kontzepturengatik egin dituzten dirusarrera horiek.

Ez, egia esan ez dago irekirik inongo bankukonturik, zeren eta, aurreko erantzunean adierazi den bezala, kasu guztietan egun-saria kobratzeari uko egiten baitzaio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 26an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

SOZIETATE PUBLIKOETAN BI KARGU BAINO GEHIAGO DITUZTEN GOBERNUKO GOI KARGUAK

José Javier Armendáriz Quel jauna, Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria.

José Andrés Burguete Torres jauna, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria.

Luis Campoy Zueco jauna, Hezkuntza kontseilaria.

José Javier Echarte Echarte jauna, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria.

Francisco José Iribarren Fentanes jauna, Ekonomia eta Ogasun kontseilaria.

Juan Ramón Corpas Mauleón jauna, Kultura eta Turismo kontseilaria.

Jesús Javier Ascunce Elizaga jauna, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusia.

Enrique Díaz Moreno jauna, Industria eta Merkataritza zuzendari nagusia.

Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia.

Juan José Grau Lasheras jauna, Ingurumen zuzendari nagusia.

Joaquín Ortigosa Ocón jauna, Komunikazio zuzendari nagusia.

José Ignacio Pérez de Albéniz Andueza jauna, Tributu Ogasunaren zuzendari kudeatzailea.

Juan José Grau Lasheras jauna, Lan zuzendari nagusia.

Ángel Sanz Barea jauna, Garraio eta Komunikazio zuzendari nagusia.

Galdera, legez kanpoko substantziak atzematearren Azagrako zenbait “piperotan” egindako sarekadari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak legez kanpoko substantziak atzematearren Azagrako zenbait “piperotan” egindako sarekadari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du legez kanpoko substantziak atzematearren Azagrako zenbait “piperotan” egindako sarekadari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galderan aipatzen den esku-hartzea, zeina ezin baita esan “legez kanpoko substantziak atzematearren egindako sarekada” denik, aisialdirako lokalak kontrolatzeko prebentzio neurri polizial arruntak hartzeko irizpideari jarraituz egin da, eta

horrekin bermatu nahi izan da bai lokal horien erabiltzaileen segurtasuna, bai lokal horien erabilera legezkoa dela ere, bereziki adingabeek beren osasunerako eta osasun fisikorako kaltegarriak diren jokabideetan –hain zuzen ere alkohola eta gai sorgogorriak kontsumitzeagatik– parte hartzeko aukera duten kasuetan.

Lokal bat baino gehiagotan aldi berean eginiko esku-hartzean, Foruzaingoaren 22 agentek hartu zuten parte, beren ohiko ekipamenduaz, eta ez zuten jardun inolaz ere “bortxaz eta gehiegizko indarra erabiliz, hartara zirrara handia eraginez haietan zeuden nerabe eta gazteengan”.

Zerbitzua mantentzeak duen ohiko kostuz gainera inongo kosturik ez zuen izan operazioak.

Foruzaingoaren esku-hartzea egokia eta proportzionatua dela jotzen dugu, hura egitea erabaki zenean eskura geneuzkan datuei erreparatuta.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jasotako dieta kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jasotako dieta kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baz-

tán jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko goi kargudunek foru administrazioko sozietate publikoetako bileretara joateagatik sorturiko dietei buruz (PES 145, PES 146 eta PES 147). Honekin batera doa hiru galdera horiei batera erantzuteko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eginiko txostena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jaso ez duten dieta kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jaso ez duten dieta kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baz-

tán jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko goi kargudunek foru administrazioko sozietate publikoetako bileretara joateagatik sorturiko dietei buruz (PES 145, PES 146 eta PES 147). Honekin batera doa hiru galdera horiei batera erantzuteko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eginiko txostena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguen dieten kontsignazio eta destinoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Nafarroako Gobernuko goi karguen dieten kontsignazio eta destinoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko

goi kargudunek foru administrazioko sozietate publikoetako bileretara joateagatik sorturiko dietei buruz (PES 145, PES 146 eta PES 147). Honekin batera doa hiru galdera horiei batera erantzuteko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eginiko txostena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Merkataritza eta Industria Ganberaren eta Sodenaren arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruzkoa, zertan den jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak ondoko galdera egin zuen: "Merkataritza eta Industria Ganberaren eta Sodenaren arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruzkoa, zertan den jakitekoa?"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Nafarroan, 2005ean,

Merkataritza eta Industria Ganberaren eta SODENAREN arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

A) galdera

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren eta Sodenaren arteko 2006ko martxoaren 15eko akordioa, Nafarroaren gastronomia eta nekazaritzako elikagaien sektorea sustatzeko proiektu bat finantzatzekoa; bi aldeek sinatu zuten. Gainera, 2006ko apirilaren 3an, Sodenak Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari proiektu horretarako aurreikusitako aurrekontuaren arabera dagokion finantzaketaren % 50aren aurreakina transferitu dio.

B) galdera

Kasuko akordioan bildutakoa.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren eta Sodenaren arteko 2006ko martxoaren 15eko akordioa, Nafarroaren gastronomia eta nekazaritzako elikagaien sektorea sustatzeko proiektu bat finantzatzeko, bi aldeek sinatu zuten. Haren kopia erantsi dugu.

C) galdera

Lehen ekinaldian lorturiko emaitzak ikusita, Nafarroako Gobernuak, Sodenaren bitartez, eta berriz ere Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren laguntzarekin, beharrezkotzat jo du beste programa bat egitea, "Nafarroaren II. Astea Amerikako Estatu Batuetan / Chicago 2006ko maiatzaren 15etik 19ra" izenekoa.

"Nafarroaren I. Astea Amerikako Estatu Batuetan: New York, 2005eko otsailaren 17-24ra" programari buruzko txostenean ateratako ondorioetan oinarriturik –txostena Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak egin zuen, eta haren kopia erantsi dugu–, beharrezkotzat jotzen da jarduera hori berrabiatzea, kontuan hartuta Iparramerikako merkatuaren tamaina eta indarra, eta bi ekitaldi nagusitan oinarrituko da:

– New Yorken eta Chicagon 2006ko maiatzean zehar egin beharreko jarduerak, 2005ean egin zirenen modukoak.

– Arlo ezberdinetan (komunikabideak, jatetxeak, inportatzaileak eta abar) adituak diren Estatu Batuetako iritzi-liderrek Nafarroan 2006ko uztaileko lehen astean eginen duten bisita.

Programa horren amaierako helburua da Nafarroa sustatzea kalitatezko produktuen lurralde gisa, eta zehazki honakoak lortzea:

- Nafarroako nekazaritzako elikagaien kalitate-irudia sustatzea.

- Elikagai horien bereizgarriak hein handiagoan ezagut ditzaten lantzea: honako alderdiak azpimarratzea, besteak beste: kalitatea, elikagaien segurtasuna eta alderdi instituzionalak.

- Gourmet dendetarako produktu mota gehiago eskaintzea.

- Elikagaien sektoreko eragile nagusiei zuzentzea: inportatzaileak, banatzaileak, retailerrak, hotelak, catering enpresak, prentsa espezializatua, iritzi-liderrak eta abar.

- Nafarroako eta mediterraneo aldeko gastronomia dieta osasungarri eta orekatuaren ikur gisa kokatzea.

- New Yorken egin zen Nafarroaren I. Astean hasitako lanak sendotzea eta zabaltzea.

Honakoak dira sustatzekoak diren produktuak: landare-kontserbak, aurrez prestatutako janariak, janari izoztuak edo/eta hoztuak, jatorrizko deitura duten ardoak, jatorri-deitura duten alkoholdundari biziak, fruta eta barazki freskoak, oliba-olioa eta mahairako olibak, haragia duten produktu eraldatu edo prestatuak, gaztak, mamia eta jogurtak.

Ekimen honen bitartez, Amerikako Estatu Batuetan bete nahi diren merkatuei buruzko lurralde-estrategia bat landu nahi da, zenbait ekintzatan oinarrituriko programa baten bitartez; programak hiru urte iraunen du.

d) eta e) galderak

Jarduketa horiek arestian aipaturiko lankidetzaren hitzarmenean bildurikoez alde batera geratuko dira. Hala eta guztiz ere, 2006rako nazioartetate planean, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, aurreikusia dauka 27 sustapen bidaia antolatzeko; horietatik 9 nekazaritzako elikagaien sektoreari dagozkio berariaz.

Eremu geografikoa	Herrialdea	Sektorea	Data	Ekintza mota
EUROPA	Austria-Eslovenia	Nekazaritzako elikagaiak	Maiatzaren 22tik 24ra	Helburua: erakusketa
	Polonia	Ardoa	Maiatzaren 29a	Helburua: erakusketa
	Errusia	Nekazaritzako elikagaiak	Urria	Helburua: erakusketa
IPARRAMERIKA	AMERIKAKO ESTATU BATUAK	Nekazaritzako elikagaiak	Maiatzaren 15etik 19ra	Nafarroaren astea (Helburua: erakusketa)
LATINOAMERIKA	Brasil	Ardoa	Ekainaren 20a	Helburua: erakusketa
EKIALDE ERDIKOAK	Liban• Elikadura	Urtarrilaren 31	Zuzeneko helburua	
	Txina	Elikagaiak eta ardoa	2. hiruilekoa	Helburua: erakusketa
	Japonia	Ardoak eta elikagaiak	Irailaren 21etik 22ra	Helburua: erakusketa
	Singapur	Ardoa	Iraila	Helburua: erakusketa

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 3an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, gaixoen historia klinikoaren inguruko hainbat auziri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak gaixoen historia klinikoaren inguruko hainbat auziri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du historia klinikoaren laguntza teknikoko eta hornikuntzako kontratuaren mailari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

1.- Profesional sanitarioak egoki deritzon informazioa sartzeko du.

2.- Historia kliniko informatizatuari dagokionez (HCI, oro har), Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatutako gaixoen historia klinikoak, arloaren arabera, bi sistema desberdinetan daude:

- OMI-AP oinarrizko laguntzan.
- HCI laguntza espezializatuan.

Historia klinikoaren datuetara sartzeko bidea ematen duten tresna bakarrak OMI-AP eta HCI dira; gainera, sistema horien datu baseetara zuzenean sartzeko ezinezkoa da horrelako aukera ematen duten erabiltzaileen kontu definiturik ez dagoelako.

Tresna horiek Nafarroako Gobernuaren sarera konektaturiko ordenadoreetatik baino ez dute funtzionatzen, ez kanpoko sareetatik.

Laburbilduz, erabilera horietara sartzeko honakoa behar da:

a) Nafarroako Gobernuaren barneko sarera konektaturiko ordenadorea izatea.

b) Aipatu sarera sartzeko baimena izatea, erabiltzaile eta pasahitzaren bidez (beharrezkoa da erabiltzaile gisa erregistratua egotea eta pasahitza izatea; esaterako, Nafarroako Gobernuak langileek bezala).

c) HCIko erabiltzaileen datu-base batean alta egoeran eta jardunean izatea; datu-base horretan aplikazio horretara sartzetik duten pertsonak kontrolatuko dira:

Erabiltzaileen alta, eremuaren arabera horrela ematen da:

– Oinarrizko osasun laguntzan, langilea arituko den oinarrizko osasun laguntzako taldeko zuzendariak eskatzen du langilearen alta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzaren Zuzendaritzako Kudeaketa Klinikoaren eta Informazio Sistemaren Zerbitzuko Informazio Sistemaren Ataleko Euskarri Informatikoaren Unitatean; unitate horretan ematen da fisikoki erabiltzailearen alta.

– Laguntza espezializatuan, langilea arituko den zerbitzuko buruak eskatzen du langilearen alta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Antolaketa Zuzendaritzako Kudeaketa Ekonomikorako eta Antolaketaren Garapenerako Zuzendariordetzako HCI euskarri taldean; talde horretan ematen da fisikoki erabiltzailearen alta.

– Bi kasuetan, eskaeran, bai erabiltzaile berrien datu pertsonalak (izena eta abizenak, elkargokide-zenbakia, eta abar), bai harentzat eskatutako profila.

– Datuak egiaztatu eta gero, alta eman bazaio, erabiltzailearen ardura da pasahitza salbu gordeztea.

d) Sartzeko baliozko arrazoi bat adieraztea.

Gaur egun, horri buruzko araudiaren arabera, historia kliniko informatizatuaren erabilerara sartzeko baliozko hiru arrazoi daude:

- 1) Kliniko edo osasun-laguntzakoa.
- 2) Ikuskapena-ebaluazioa-akreditatzea-plan-gintza.
- 3) Administrazio-kudeaketakoa.

Gainera, sarrera egin eta gero erregistraturik gelditzen da (sartu den erabiltzailea, sartu den historiaren zenbakia, data eta ordua, sartzeko erabilitako helbidea, kontsultatu diren datuak, une horretako sartzeko-maila, zer zerbitzutatik sartu den eta jatorrizko aplikazioa); eta hori, sartutako guztietan.

Bestalde, aplikazio informatiko horrek bere erabilgarritasuna, isilpekotasuna eta zuzentasuna bermatuko dituzten berezko segurtasun sistemak eta eginkizunak ditu.

Paperean dagoen dokumentazio klinikoak kontsultatu nahi bada, uzte-prozesu osoa kontrolatzen da (berez horretarako dagoen aplikazio informatiko baten bidez): datak, nork eskatu zuen, orain nork duen, non dago, etab.

Egin nahi den sarrera aurreko arrazoietakoa bat ez bada, edo/eta sartu nahi den pertsona Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ez bada, sartzeko prozedura Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen urtarilaren 13ko 64/2006 Ebazpenean ezarrita dago.

3.- O-NOZen bada datuen babesaren arloko segurtasunaz arduratzen dena:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun arloko Informazio Zerbitzuko burua.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 9an eman zuen 1492/2005 Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Segurtasun arduradunaren eginkizunak hauek dira:

- Segurtasun agirian zehaztutako neurriak koordinatzea eta kontrolatzea.
- Auditoretza-txostenak aztertzea.
- Sarreraren kontrola ahalbidetzen duten mekanismoak kontrolatzea.

4.- Historia klinikoaren batzordeko eta informazioaren segurtasunerako batzordeko hainbat kidek osatutako batzorde mistoa 2006ko martxoaren 27an bildu zen.

Batzorde misto horren eginbeharra da historia kliniko informatizatuaren arloan dauden auditoretza-politikak zehaztea. Aipatu politika horren lehengo definizioa egin da. Aurtengo apirilean lehengo auditoretza egin da batzorde mistoak ezarritako irizpideen arabera; auditoretza hori oraindik ez da aztertu. Auditoretza horrekin HCl arloan politika orokorrak zehazteko aukera ematen duten ondorioak atera nahi dira.

5.- Dokumentazio klinikoaren artxibo guztietan egiten dira langileentzako prestakuntza-ekintzak; oro har, isilpekotasunari eta datu pertsonalak babesteari buruz.

Historia kliniko informatizatuaren arloan:

HClri lotutako edozein aplikazio irekitzean, isilpekotasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko behararekin lotutako zenbait alderdiri buruzko informazioa etengabe ematen da.

Urtean zehar etengabe egiten diren zenbait prestakuntza ikastarotan (adibidez, OMLri eta HClri buruzko ikastaroetan), beti izaten da gai horri buruzko kapituluaren bat, prestakuntza osoaren barruan.

Beste batzuk:

2002an tailer espezifikoak egin ziren, eta 2003an, Nafarroako II. Jardunaldi Juridiko-sanitarioak, beste batzuen artean Osasun Departamentuak antolatuta; jardunaldi horietan datu pertsonalen babesarekin lotutako zenbait alderdi era trinkoan aztertu ziren. Bi urte lehenago egindako jardunaldien jarraipena izan ziren.

Osasun Departamentuko irakaskuntza planean urtero bioetikari buruzko ikastaroak sartzen dira.

Hona hemen aipatu gaiari buruz egindako azkenetako prestakuntza-ekintza batzuk, 2005. urtekoak:

Bideko Ama Birjina Ospitalean:

– Langileria Zuzendaritzan, Bideko Ama Birjina Ospitalean aldi baterako edo behin betiko kontratua sinatzen duen langile orori idazki bat ematen zaio.

Bideko Ama Birjinaren Ospitaleko Osasun Laguntzako Etika Batzordeak sustatutako bioetikari buruzko ikastaroetan, konfidentzialtasunaren gaia berariaz aztertzen da. Azken ikastaroa, 2005eko urriaren 30etik azaroaren 16ra bitartean egin zen, eta osasun arloko lanbide heziketa arautuko tituludunei zuzendu zitzairen. Beste ikastaro batzuk sendagile eta erizaintzat izan ziren.

Aurreneurrien Medikuntza eta Kalitatearen Kudeaketarako Zerbitzuaren menpekota den Histo-

ria Kliniko Informatizatuaren Koordinakundeak, Erizaintza Zuzendaritzak horrela eskatuta, 2005eko urritik abendura bitartean, bi orduko iraupena zuten bost mintegi eman ditu; mintegiak konfidentzialtasunaren alderdi etiko eta legalei buruz ziren, kirurgia-aldeko erizainei, laguntzaileei eta zeladoreei (30 ikasle mintegiko) zuzenduta.

Tuterako Reina Sofia Ospitalean:

2006. urterako, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari "datu pertsonalak babesteko legeriari" buruzko jardunaldiak Tuterako Reina Sofia Ospitalean egiteko eskatu zaio.

Joan den hilabetean, Tuteran baita ere, Osasun Laguntzako Etika Batzordeak egindako inkesta baten emaitzak aurkeztu ziren; inkestak "osasun arloko konfidentzialtasunari buruzko datuak" zuen izena.

6.- Historia klinikoa euskarri elektronikoan; osasun sare osoan indarrean dagoena. Informazio hori bizirik dago.

Paperean dagoen historia klinikoa indarrean dago ondokoetan:

– Oinarrizko osasun-laguntzaren arloan: bizirik eta artxibatua dago, baina praktikan, HCik (OMIk) ordezkatu du bere erabilera; izan ere HCIn etengabe dago erabilgarri.

– Vianako Printzea kanpo kontsultetarako zentroko eta General Solchaga anbulatorioko historia klinikoen artxiboetan (biak historia aktiboetarako) eta Cordovillako artxibo pasiboan. Hemen laguntza espezializatuko zentro guztien historia klinikoa bateraturik daude, Ubarminen eta Garcia Orcoyen Ospitalean daudenak izan ezik (logikoki bateraturik, hau da, pertsona bakoitzarentzat zenbaki bera) eta Tuterako Reina Sofia Ospitalean daudenak izan ezik (hauek ere logikoki bateraturik).

Oro har, dokumentazioa suntsitzea ez dago aurreikusita, baizik eta digitalizatzea, etorkizunean ere jarraitzea ahalbidetzeko.

7. Plantillako langile batzuek eginkizun horiek baino ez dituzte. Horretaz gain, beste langile batzuek aldi bateko lana egiten dute paperean dagoen dokumentazio klinikoa banatzen edo kontrolatzen.

Iruñeko ospitale eta osasun-etxe guztietara, Ubarminera izan ezik, dokumentazioa ematen duten artxiboetako plantilla honakoa da:

- Sendagile bat
- Osasun-dokumentazioko teknikari bat
- 6 administrari
- 43 administrari laguntzaile
- 5 zeladore

Iruñeko zentroyei dagokienez, ordea, artxibo pasiboaren kudeaketa kanpoko enpresa batek egiten du. Enpresa horrek ere historien zerbitzua gaez, larunbatetan eta jaiegunetan egiten du; txanda bakoitzeko bi langile ditu.

2006an, artxibo pasiboa kudeatu eta historien zerbitzua gaez, larunbatetan eta jaiegunetan egiten duen enpresaren kostua 248.000 eurokoa izan da.

8.- Historia klinikoen isilpekotasunari eta esku-ratzeari dagokienez, arestian erantzun dugu.

Kontratutako kanpoko enpresarekin sinatutako kontratuan (eta aurretik, esleitzeko egiten diren lehiaketen deialdietan) isilpekotasuna gordetzeko eta zaintzen duten dokumentazio klinikoa dauden gaixoen datu pertsonalak babesteko beharra agertzen duten berariazko klausulak daude. Enpresa esleipendunak hori guztia zaintzeko legezko eta kontratuzko betebeharrak ditu.

9.- Dokumentazio klinikoen garbiketa eta suntsipena honakoek egiten dute:

- Historia klinikora sartzeko baimena duten langileek, dokumentazio egokia sartuta.
- Historia klinikoen artxiboak, aldizka.
- Historia klinikoa digitalizatzeko ardura duen enpresak.

Oro har, garbiketa gure baliabideekin egiten da, historien digitalizazioaren kasuan izan ezik; azken hau enpresa esleipendunak egiten du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ikuskapen eta zuzendaritzapean. Beti Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lokaletan egiten da.

Baztertutako agiriak isilpeko dokumentazioa suntsitzen aritzen den enpresa batek birrintzen ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Ubarmin Klinikako interbentzio kirurgikoekin lotutako zenbait auziri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Ubarmin Klinikako interbentzio kirurgikoekin lotutako zenbait auziri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Ubarmin Klinikaren arratsaldetan egindako ebakuntza kirurgikoei eta horiek itxaronzerrendetan izandako eraginari buruz Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Guztira, arratsaldeko kirofanoetan 181 ebakuntza egin dira, 2006ko otsailaren 14tik martxoaren 31ra bitartean.

Arratsaldeko ohiko kirofanoan 86 ebakuntza egin dira, eta ohiz kanpoko kirofanoan, aldiz, 95 ebakuntza.

2. Ebakuntza horiek egiteak Ubarmin Klinikaren itxaron-zerrendetan eragin ona izan du; izan ere, 180 egun baino gehiago zain zegoen pertsonen kopurua nabarmen murriztu da; 2006ko urtaririlaren 1ean 454 pertsona zeuden zain eta martxoaren 31n 12 baino ez.

3.- Plan zuzendaria indarrean dago oraindik eta arian-arian garatzen ari da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, kirurgiako itxaronzerrendetako gaixoak zentro pribatuetara igortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak kirurgiako itxaronzerrendetako gaixoak zentro pribatuetara igortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Kirurgiako itxaronzerrendetako gaixoak zentro pribatuetara igortzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

1. 2006ko urtarrilaren 1etik Nafarroako Klinika Unibertsitariora 32 gaixo igorri dira ondoko patologiek:

PATOLOGIA	IGORRITAKOEN KOPURUA
Luxazio akromioklabikularra	1
Artroskopia	4
Karpoko kanala berrirekitzea	2
Granuloma	2
Belauneko luxazioa	1
Belauneko lotailuak konpontzea	1
Giharretako haustura	1
Mahuka biratzailearen haustura	2
Aldaka osorik ordezkatzeta	12
Belauna ordezkatzeta	2
Falangearteko artrodesia	3
Sorbaldako artrodesia	1
Ornoetako artrodesia	1

2.- 2006ko martxoaren 31 arte, gastua 63.406,62 eurokoa izan da; zentro pribatua Nafarroako Klinika Unibertsitariora da.

Ebakuntza motaren araberako gastua, prezio finkoko prozeduraren bidezko tarifari dagokio; tarifa hori Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin sinatu zen laguntza emateko itunean ezarritakoa da.

3.- 2006ko urtarrilaren 1etik Nafarroako Klinika Unibertsitariora 156 gaixo igorri dira ondoko patologiek:

PATOLOGIA	IGORRITAKOEN KOPURUA
Lipoma	3
Odoluzkiak	49
Errefluxu gastroesofagikoa	1
Hernia	74
Kolelitisia	15
Kiste pilonidala	7
Uzki-arteka	7

4.- 2006ko martxoaren 31 arte, gastua 109.973,87 eurokoa izan da; Nafarroako Klinika Unibertsitariora izan da zentro pribatua.

Interbentzio motaren araberako gastua, prezio finkoko prozeduraren bidezko tarifari dagokio; tarifa hori Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin sinatu zen laguntza emateko itunean ezarritakoa da.

5.- 2006ko urtarrilaren 1etik Nafarroako Klinika Unibertsitariora 107 gaixo igorri dira ondoko patologiek:

PATOLOGIA	IGORRITAKOEN KOPURUA
Artroskopia	2
Karpoko artrodesia	3
Sorbaldako konpontzea	35
Eskuko faziesktomia	2
Belauneko luxazioa	1
Osteotomia	3
Atzapar itxurako hatzak	2
Aldaka osorik ordezkatzeta	30
Belauna ordezkatzeta	17
Ornoetako artrodesia	9
Hezurretako nekrosi aseptikoa	1
Granuloma	1
Artropatia	2

6.- 2006ko martxoaren 31 arte, gastua 68.824,00 eurokoa izan da; zentro pribatua Nafarroako Klinika Unibertsitariora izan da zentro pribatua.

Interbentzio motaren arabera gastua, prezio finkoko prozeduraren bidezko tarifari dagokio; tarifa hori Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin sinatu zen laguntza emateko itunean ezarritakoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Senda Viva naturaren parkeko inbertsio publikoei eta aurreikusitako bisitari kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak Senda Viva naturaren parkeko inbertsio publikoei eta aurreikusitako bisitari kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Senda Viva naturaren parkeko inbertsio publikoei eta aurreikusitako bisitari kopuruari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

1. galdera.

Ondoko taulan eskatutako informazioa zehaztu dugu:

	2005		2006
	Aurreikuspena	Egiazkoa	Aurreikuspena
Bisitariak	42.500	41.600	65.000
Zabaldutako egunak	78	78	110
Bisitariak eguneko	545	533	591

2. galdera.

Honakoak izan dira aipatu atrakzioetan eginiko inbertsioak:

Atrakzioa	Egin beharreko inbertsioa (euroak, milakotan)
• Bobsleigh zirkuitua	1.300
• Bardeako Behatoki interaktiboa	110
• Tirolina	60
• Alfonbra hegalaria eraikin berria eta alfonbra berri bat dagozkion grabatzeko sistemekin	300

3. galdera.

Parkearen hirugarren denboraldi hau bereziki adierazgarria da; izan ere, Senda Vivak eskualdean dituen eragina eta garrantzia gero eta nabarmenagoak dira. Bisitari kopuruaren bilakaera positiboak eta bisitariak Senda Vivari buruz egiten duten balorazioak aipatu eragina berresten dute; joera hori joan den denboraldian hasi zen agertzen.

Izan ere, 18.000 pertsona baino gehiagok gozatu dute Senda Vivak (Arguedas-Nafarroa) eskaintzen duen abenturaz eta dibertsioaz 2006ko denboraldi honetako lehen lau asteetan. Parkean, gainera, atrakzio berriak jarri dira, eta zerbitzuak eta azpiegiturak hobetu dira, eremua bisitariantzat gustagarriagoa izan dadin.

Aste Santuan, hoteletako, landa-etxeetako, ostalaritzako eta abarretako ia toki guztiak bete ziren. Egonaldiak, batez ere, gau batekoak edo bi gauekoak izan dira, eta maiz, egun horietako bat Senda Vivara joateko erabili dute. Apirilaren 13tik (osteguna) apirilaren 17ra (astelehena) bitartean, bost egunetan alegia, ia bost mila lagunek bisitatu dute parkea; jende gehiena apirilaren 13an, 14an eta 16an joan zen (gutxi gorabehera, 2.200 lagun). Hori dela eta, jendea arratsaldean ateratzen hasi zen arte ez zen bisitari gehiago sartu. Beraz, Senda Viva ikusteko Arguedasera joandako milaka lagun parkera sartu ezinean geratu ziren. Zehazki, apirilaren 14an (ostiral santuan) foruzainek goiz

osoa eman zuten parkerako sarbideetan, Arguedasen eta Valtierran trafikoa kontrolatzen eta zuzentzen.

Apirilaren 8tik, hau da, ireki zen egunetik, 18 egunez egon da zabalik (lau egunez soilik talde eta kolektiboentzat), eta horietako bostetan (apirilaren 13an, 14an, 16an eta 30ean eta maiatzaren 1ean) familien kopurua gomendatutako gehieneko mugara iritsi zen. Instalazioak ireki baino bi ordu lehenago okupazioa erabatekoa zen. Okupazio txikiena, berriz, apirilaren 22an izan zen, larunbatez. Euria eta haizea gorabehera, zirkoaren lehen saioan, goiz erdian, 275 pertsona zeuden.

Naturaren abentura eta dibertsio parke honetara datozen familia eta taldeak hobeki informaturik egon daitezten, Senda Vivak okupazio datuak eskaintzen ditu bere webgunean, bisitariak gomendatutako gehieneko zenbatekoaren % 80a iristen direnean. Gainera, maiatzaren lehen hamabostaldian, Internetez erreserbak egin eta sarrerak erosi ahalko dira, bai parkera joateko, bai Senda Viva parkearen barruan dagoen aterpera joateko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, harzuriaren sektorea bizkortze aldera Legebiltzarrak onetsi zuen mozioa bete dadin eman diren urratsei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak harzuriaren sektorea bizkortze aldera Legebiltzarrak onetsi zuen mozioa bete dadin eman diren urratsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du harzuriaren sektorea bizkortze aldera eman diren urratsei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

PSNren parlamentu-taldeak, egin diren parlamentu-ekimenen bidez, Nafarroako Gobernuak harzuriaren sektorearen inguruan orain arte egindako jardueren berri zehatza du; ekimen horietako asko PSNk berak egin ditu.

Hala ere, hona hemen garatutako jarduera nagusiak.

– Bilerak:

1. Iruña. 2005-07-01: gobernua, udala eta enpresariak.

2. Cintruénigo. 2005-10-24: gobernua, udala eta enpresariak.

3. Cintruénigo. 2006-01-26: gobernua, udala eta enpresarien batzordea.

4. Iruña. 2006-03-20: gobernua, udala eta enpresariak.

– Harzuriaren sektorea laguntzeko proposamena:

Nafarroako Gobernuak, 2005eko uztailaren 1ean, sektorearen enpresariei ehungintza-sektorea bultzatzeko eta finkatzeko sinatu zen akordioaren antzeko bat sinatzeko aukera eskaini zien; era berean, hobetzeko jarduerak aztertu eta planifikatu dituen sektorerako bideragarritasun-plan bat egiteko aukera eskaini zien. Hobetzeko jarduera horien artean Redplena programan zehaztutakoak sartuko dira.

Aipatu proposamena harzuriaren sektorerako lan-mahai baten sorreran kokatzen da; lan-mahaia Cintruénigoko Udalak, sektoreko enpresek eta Nafarroako Gobernuko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak osatzen dute.

Industria Departamentuak, prozesuaren hasieratik, harzuria sustatzeko neurrien garapenean sektoreko enpresen inplikazioa halabeharrezkoa zela nabarmendu zuen. Hasieran, sektoreak prozesua babestu zuen. Sektorean dauden 21 enpresetatik 14k parte hartu zuten; hori dela eta, arazo operatiboengatik, ordezkari-batzorde bat osatu behar izan zen.

Lan-mahai horretan hartutako lehenbizikoetako erabakia harzuriaren sektorerako bideragarritasun-plan bat egiteko beharra izan zen. Aipatu planaren finantzaketari buruzko akordio hau lortu zen: Nafarroako gobernua % 50 emanen zukeen, udalak % 25 eta enpresek % 25 emanen zuketean.

Nafarroako Gobernua hiru aholkularitza-enpresei harzuriaren bideragarritasun-plan bat egiteko eskaintza egin zezaten eskatzeaz arduratu zen. Hiru eskaintzak jaso eta gero Cintruénigoko Udalariei eta enpresariei bidali zitzaizkien jakinaren gainean egon zitezten.

Hori egin eta gero, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako eskaintzak aztertzeko, eta, kasua

bazen, egokiena onartzeko lan-mahaia biltzeko deia egin zuen.

Izan ere, deitutako azken bilerara hiru enpresa baino ez ziren joan; horietatik bi harzuriaren sektorekoak ziren eta bestea harzuri-xafren sektorekoa. Bilerara joan ziren enpresak joan ez ziren enpresen borondate faltagatik gogogabetu ziren; hori dela eta, aipatu plana egiteko eta finantzatzeko baldintza egokirik ez zegoela ondorioztatu zen; izan ere, sektorearen parte hartzea eta inplikazioa oinarritzeko premisak ziren.

Bilera horretan, Nafarroako Gobernuak azterlan sustatzen jarraituko zukeela berretsi zuen, betiere, sektoreak interesa bazuen; horretarako, bideragarritasun-planaren planteamenduak, gutxienez, sektoreko enpresarien % 60ren babesa behar zuen Harzuriaren arloko jardueren pixkanakako itxierak ukitutako langileen egoerari buruzko azterketari dagokionez, enpresek berek esan zutenaren arabera, langileak eskualdeko beste enpresa batzuetan birkokatzen ari ziren.

Hala ere, lan-mahaia ez da izan harzuriaren sektorearen inguruan egin den jardura bakarra.

Hona hemen hartutako beste neurri batzuk:

1. Nafarroako Enplegu Zerbitzua:

1.1.- Tailer-eskola: dagoeneko abian da 19 ikaslerekin.

1.2.- Prestakuntzarako laguntzak: lanerako prestakuntza ikastaroen deialdietan harzuriarekin lotutako prestakuntza sar dezaten beharrezkoak ziren jarduerak ere hasi dira.

1.3.- Enplegu eta Emakume Batzordea: Batzorde horren baitan, emakumezko langileak kontratatzeari buruzko sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak garatuko dira.

2. Merkataritza Zerbitzua:

Harzuriaren sektorea nazioartera hedatzeko lan egin dugu.

2.1.- Esportatzeko gaitasunari buruzko azterlan. 2005ean egin.

Nafarroako Enpresa Nazioartera ateratzeko 2005eko Planaren barruan “esportatzeko gaitasunaren azterketa sektoriala” dago; azterketa horren helburua esportatzen ez duten edo gutxi esportatzen duten enpresak sentsibilizatzea da. Azterketa, Merkataritza Ganberako eta CEINeko teknikariek elkarrekin egin dute, enpresei egindako elkarriketen bidez eta metodologia zehatz bati jarraituz.

2005ean, aukeratu den sektoreetako bat “erakuntzako materialena” izan da, eta horren barruan,

harzuriaren sektorea sartu da, gaur egungo egoera kontuan harturik.

Harzuriaren sektoreko 5 enpresa hautatu ziren, eta horietatik, 4 bisitatu ziren.

2.2.- Esportazioen sustapena honako bi hauek lagun dezakete:

– Lanaldi partzialeko esportazio-kudeatzaileak. Esportazio departamentu baten lana eginen luke, baina merkeago; gainera, enpresen ikasketa ahalbideratuko luke.

– Esportatzeko Unitate Elkartua. Enpresek osatua, baldin eta lankidetzarako borondaterik badute; eta hori ez da beti gertatzen.

2.3.- Laguntza-deialdia:

Nafarroako Enpresa Nazioartera ateratzeko Planaren barruan Promex hastapenerako eta Promex dibertsifikaziorako programei dagozkien laguntza-deialdiak daude; horien arabera, kanpoko merkatuetan sustapena egiteko gastuak diruz lagunduko dira. Deialdi horiek harzuriaren sektoreko enpresentzat ere irekita daude. Izan ere, horietako batzuek eskaera aurkeztu dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 9an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Erriberan abiadura handiko trena dela-eta ebazteke dauden zenbait auziri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Erriberan abiadura handiko trena dela-eta ebazteke dauden zenbait auziri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du abiadura handiko ipar-ekialdeko trenbide-korridoreari –Zaragoza-Castejón zatia– dagokion azterlanaren espedientearen izapideei eta egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

1. Ikusita Zaragoza-Castejón tarteari dagokion azterlana, dirudenez, 2003ko azaroan Ingurumen Ministerioari igorri zitzaioala ingurumen eraginaren adierazpena egin zezan, eta ikusita, halaber, adierazpen hori ez dela oraindik onetsi, ba al daki Nafarroako Gobernuak zergatik dagoen deklarazio

hori geraturik Estatuko administrazioan? Zein urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak tramitazio hori bultzatzeko? Zer irizten dio geratze horri?

2. Abiadura handiko trena Tuteratik iragaten den tarterako alternatibean azterlana abian jarri al da? Zein aurrerapen eman dira 2004tik balizko trazadura horiek direla eta? Aurrerapenik eman ez bada, horretarako arrazoiak ezagutu nahi ditugu?

3. Ba al dago aurrerapenen bat edo informazio berriren bat Nafarroako Erriberan abiadura handiko trenak izanen lukeen geltokiari buruz edo aipatu trenaren geltokiren bat Tuteran jartzeari buruz?

ERANTZUNA

1. “Abiadura handiko ipar-ekialdeko trenbide-korridoreari –zaragoza-Castejón zatia–” dagokion proiektuaren azterlana 2003ko apirilaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean jarri zen jendaurrean; orain, ingurumen eraginaren adierazpena egin behar da eta ondoren azterlan informatiboa onetsi behar da.

Aipatu proiektu hori Estatuko administrazioaren eskumena denez, aipatu azterlana orain arte ez ebazteko arrazoiak ez ditugu baloratuko.

2. Nafarroako Gobernuko Herrilan zuzendari nagusiak, 2004ko azaroaren 4an, Sustapen Ministerioari “Tuterako aldeko trenbide sare berriari,

abiadura handiko linea berriari, egungo linearen saihebidetari eta geltoki berriari buruzko azterlan informatiboa” idazteko baldintza teknikoen orriaren proposamena bidali eta garatzeko aukera eskaini zion. Aipatu erakundeak emanen duen erantzunaren zain gaude.

3. Aurreko ataletan erantzun zaiola uste dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, “Eta jaietan, zer?” kanpainari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak *Eta jaietan, zer?* kanpainari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du *Eta jaietan, zer?* izeneko kanpainari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. “Eta jaietan, zer?” kanpainan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak 2006ko martxoaren 20an aurkezturiko azalpenaren arabera, Didart enpresak diseinu eta maketazio lanak egin zituen. César Oroz izan zenez komikia eta hura elastikoetan inprimatzeko egokitzapena egin zituena, eta kartelak, berriz, Imagrafek egin zituen, zein izan dira Didart enpresaren diseinu eta maketazio lanak?

Didart enpresaren lana aipatu kanpainari buruzko CDa argitaratzeko edukiaren diseinua eta maketazioa egitea izan da.

2. • Kontuan izanda Nafarroako Emakumearen Institutuak, parlamentari honen iritziz, teknikari

nahiko dituela halako lanak egiteko, zenbat ordu eman zituen horretan eta zenbat herri bisitatu zituen Arantzazu Zugasti Azurmendik eta zergatik kontratatu zen kanpainarako?

Galderan egindako balioespenean sartu gabe, adierazi behar dugu Arantzazu Zugasti Azurmendik ez dituela jaietan zeuden herriak bisitatu, Barañain izan ezik, bertan eman baitzitzaion hasiera kanpainari. Bestalde, Kazeta enpresa kontratatu genuen komunikazio eta genero arloan aditua den eta gaitasun egiaztatua duen komunikazio enpresa baten beharra ikusi genuelako.

3. Markoaren diseinuaren “soiltasuna” ikusita, zenbat unitate egin zituen Cuadros Ibáñez enpresak 2.205,11 euro kobratzeko?

Cuadros Ibáñez enpresak ez zuen bakarrik markoaren diseinua egin; izan ere, beste hauek ere egin zituen:

- Cda erabiliz orriak inprimatu.
- “Hitzak” banaka egin zituen.
- Bi motatako markoak egin, bata gaztelaniaz eta bestea elebiduna euskara-gaztelania.

51 koadro egin ziren, kanpainan parte hartu zuen herri bakoitzeko bat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak apirilaren 5ean egindako agerraldiak sortutako zenbait zalantzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak jaunak Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak apirilaren 5ean egindako agerraldiak sortutako zenbait zalantzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du "Avantius" ezartzea era erabiltzeari eta Justizia Administrazioaren informatizatzeari buruz. Hona Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein arazo sortu dira, sisteman eta enpresa administratzailean, "Avantius" ezartzeko eta erabiltzeko garaiak?

Kudeaketa prozesala egiteko Avantius programa sektore publiko zehatz bati eta erabilera zehatzei egokitutako tresna informatikoen ezarpenetako ohiko protokoloa garatuz ezarri da. Hasieran, Espainian kudeaketa prozesalerako prestaturik zeuden aplikazio gutxiren artean gure ustez etorkizunean bilakatzeko aukera gehien zuena hautatu behar izan genuen, eta, era berean, Nafarroako Gobernuaren informazio-sistemen arkitektura teknologikora hobekien egokitzen zena. Hori dela eta, Accenture enpresak Kanariar Uhartetako Autonomia Erkidegorako egindako Atlante aplikazioa aukeratu zen. Enpresa horrek aplikazioa aldatu eta Nafarroako Justizia Administrazioaren beharretara eta neurrietara egokitu zuen, Avantius sortuz. Aplikazio hori egiteko Nafarroako Justizia Administrazioan beharrezkoa zen oinarrizko parke teknologikoa jarri zen, baita aplikazioek web plataforman egoki funtziona dezaten beharrezkoa zen komunikazio sarea ere.

Kontratututako enpresak Justizia Administrazioaren erabiltzaileekin egindako azterketa funtzionala oinarri hartuta, 2002ko otsailetik ekainera bitartean, Avantiusen lehenengo bertsioa ezarri

zen; bertsio horrek ondoko jurisdikzioetako instantzia guztietarako oinarrizko moduluak zituen: administrazioarekiko auzietako jurisdikziorako, jurisdikzio zibil, penal eta sozialerako. Geroztik, 2003. eta 2004. urteetan, adingabekoen jurisdikziorako eta espetxeratuen zaintzarako moduluak egin dira; doako laguntza juridikoaren kudeaketa integralerako Asigna aplikazioa egin eta Avantiusekin lotu da; Avantius aplikazioa hobetzen joan da erabiltzaileen eskakizunak oinarri hartuta, eta Avantiusen egindako eguneroko lanaren ondorioz, sortutako informazio-bolumenaren egiaztapen enpirikoagatik, segurtasun informatikoko protokoloak pixkanaka ezartzeagatik eta sistemaren erabiltzaileak egokitu direlako. Halaber, emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako legea eta konkurtsoari buruzko legea bezalako berrikuntzen ondorioz modulu berriak erantsi dira.

Enpresa aldatzeko arrazoiak estrategikoak izan dira; izan ere, gure ustez Tracasa enpresa publikoak Nafarroako informatika judiziala eraginkortasun handiagoz har zezakeen bere gain. Horren bidez, Nafarroan aplikazioak izan duen bilakaera ezagutzeak dakarren balio erantsia mantentzea lortzen da.

Enpresa aldatzeko erabakia, Accenturerekin adostuta, 2005eko erdialdean hartu genuen. Ondoren, 2005eko azken hilabeteetan eta 2006ko lehen hilabeteetan ordezkapena egin da; ordezkapenak, hasieran, tresnaren erabileren bilakaera mantsotu zuen, baina une hauetan hori gainditu da; izan ere, Avantius bertsio berria berehala ezarriko da, zinpekoak hautatzeko modulua bukatu da, jakinarazpenak eta bahiturak kudeatzeko modulua hasi da eta Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren modulua laster lotuko da.

2003, 2004 eta 2005ean gastatutako zenbatekoak eta 2006. urterako aurreikusitako gastua ezin dira izan mantentze-lan hutsengatik; urte horietako zenbatekoak, hurrenez hurren, hauexek izan dira: 1.687.464, 2.212.280, 1.672.635, eta 1.380.492.

2.- Zein arrazoi daude Erregistro Zibilaren informatizazioa burutu gabe edo geraturik egoteko?

Erregistro Zibilaren informatizazioa, Nafarroako Gobernuari dagokionez behintzat, ez dago geraturik ezta burutu gabe ere.

Erregistro zibiletan bi jarduketa mota egiten dira: espedientetzat har daitezkeenak (ezkontzak, nazionalizazioak, abizen aldaketak eta abar) eta izen-emateak.

Espedienteei dagokienez, Avantius ezarri zentrik, espediente judizialei lotutako kudeaketa beharrezkoak egiteko modulu bat dago; gainera, legeak agindu dituen eta berezko protokoloak dituzten beste jarduketa batzuetan agiri eta kudeaketa guztiak informatizatuta daude.

Izen-ematei dagokienez, Justizia Ministerioak, Inforeg aplikazioaren bidez, Espainiako erregistro zibilen informatizazio bateratua egiteko ekimen bat sustatu zuen; Nafarroako Gobernuak ekimen horrekin bat egin zuen beharrezkoa zen material guztia ezarriz. Gauzak horrela, Inforeg lanean hasi zen 2004ko irailaren 17an, Iruñean; irailaren 27an, Tafallan; urriaren 4an, Agoitzen; urriaren 11n, Tuteran; eta urriaren 18an, Lizarran.

Gaur egun, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak bultzatutako Avanz@ izeneko proiektu bat dago; proiektua zenbait zerbitzu publikoren hedapen telematikorako da, besteak beste osasun arlokoak, hezkuntzakoak eta abar. Arlo horietako bat bigarren mailako erregistro zibilen –hau da, epai-barrutietako herriburuetako egoitzetan ez dauden erregistro zibilen– informatizazioari dagokiona da. Ondokoak arlo honetan aurreikusita dauden jarduketa-lerroak dira: Inforeg aplikazioaren bilakaera; autonomia erkidegoen laguntza ekonomikoaren bidez, sareak udal egoitzetara eta bake-epaitegietara zabaltzea; aplikazioaren datu-baseetan erregistro zibilen datu historikoak sartzeko lan-taldeak prestatzea (Nafarroan 2004ko irailetik atzera litzateke)

Justizia Zuzendaritza Nagusiak proiektuan dagokion zenbatekoarekin (200.000 euro hiru urtetan) parte hartuko duela dagoeneko iragarri du; Nafarroako datu historikoak Inforegen sartzen hasteko Industria Ministerioak eta autonomia erkidegoek hitzarmen-markoaren sinadura protokolizatu behar dute eta Justizia Ministerioak aipatutako hitzarmen espezifikoren sinadura formalki proposatu behar du.

3.- Zein da bide telematikoko informazioaren egoera? Zer egitea aurreikusi da?

Gai honetan, profesionalei emandako informazioa eta herritarrei ematen zaiena bereizi behar da.

Profesionalei emandako informazioari, eta zehazki, tresna elkarreragilei dagokienez, honakoa esan behar dugu: epaiketa azkarrak ezarri zirenean, egoitza judizialtan egindako agerraldietarako,

polizia kidegoekiko konexioak jarri ziren abian; hilabete bat baino lehenago, epaiketa-eguna jartzeko agenda informatikoa ezarriko da; agenda hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak erabiltzen duen tresna da eta Espainia osoko esperientzia pilotu gisa ezarriko da Iruñeko organo judizialak Nafarroan ari diren abokatu eta prokuradore guztiak epaiketa-egunak adostu ahal ditzaten. Horretaz gain, lehen aipatu dudako laguntza juridikoa kudeatzeko Asigna aplikazioa dago; horrek Nafarroako abokatu eta prokuradoreen bost elkargoak Justizia Zuzendaritza Nagusiarekin eta organo judizial guztiak lotzen ditu.

Informazioaren eta herritarrekiko harreman informatikoaren tresnei dagokienez, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusia Nafarroako atariko moduluak hedatzeko protokoloak egiten ari da; horietako batek, justiziakoak, honakoa hartuko du barne: Nafarroako Justizia Administrazioari buruzko oinarritzko informazio guztia; erregistro zibilar buruzko kudeaketak egitea; intereseko informazio espezifikokoak; eta espediente judizialen egoerari buruzko kontsultak, beharrezkoak diren pribatutasun eta segurtasun neurriak kontuan harturik.

4- Zein urrats egin dira justizia aretoetan grabaketak egin ahal izateko?

2002. urteko hasieran, Prozedura Zibilarren Legea atera zen; lege horretan ezarritakoaren arabera beharrezkoa zen epaiketa zibilak ikus-entzunezko euskarrietan grabatzea; hori dela eta, Nafarroako egoitzetako 12 judizio-aretoetan grabaketa-sistema bat jarri zen.

2005ean, egintza judizialtan ikus-entzunezko grabaketa-sistema berria jartzeko proiektu bat hasi zen; helburua zen grabaketa-sistema ez zuten 12 aretoetan sistema berria jartzea, eta geroztik, aurreko grabaketa-sistema zuten 12 aretoetan ere sistema berria jartzea. Horrela, Nafarroako eraikin judizial guztietako judizio-aretoetan epaiketa grabatuak egin ahalko dira, nahiz eta hori prozedura legearen arabera derrigorrezkoa ez izan.

Une honetan, sistema berria lau aretotan jarrita dago, eta aurtengo maiatzean eta ekainean areto guztietan jarriko da.

5.- Ba al dago Nafarroako Justizia Administrazioaren garapen informatikorako planen bat? Hala-erokik baldin badago, erantsi horren kopia.

Nafarroak justizia arloa bere gain hartu zuenean, Justizia Administrazioaren oinarritzko informatizazioaren plangintza egin zen; horrek lehen aipatutako oinarritzko tresnak modu neurtuan eta antolatuan ezartzea erraztu zuen.

Geroztik, egin beharreko bilakaeren plangintza urtero egin da; betiere, kontuan izanik azken urteotan eman diren legeen aldaketak ugari izan direla eta Justizia Administrazioaren aplikazio informatikoen inguruan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak dituen irizpideetan bilakaera izan dela (bateragarritasuneko testa, epaiak igortzeko XML sistemaren hautaketa, puntu neutro judizialaren funtzionalitateak, etab.). 2006. urteari dagokionez, Justizia Auzitegi Nagusiak oraindik ez du erabaki informatika batzorde berriaren osaketa; ekitaldi honetako jarduerak batzordearekin batera zehaztuko ditu.

6.- Nola bermatu nahi da, funtzionamendua galarazi gabe, hedabideak epaiketetan egon ahal izatea?

Lehenik eta behin aipatu behar da epaiketa batean hedabideak egotea dagokion organo judizialak baimendu behar duela. Baimena ematen den

kasuetan, organo judizialak berak hedabideek arretan bertan edo justizia-jauregiko beste leku batean egon behar duten erabakiko du. Azken aukera hori posiblea izan dadin, hedabideek aretoko ikusentzunezko bitartekoekin grabatzen ari den epaiketaren garapena denbora errealean ikus eta entzun dezaten beharrezkoak diren baliabideak eskuratuko dira. Sarearen gaitasuna eta segurtasuna direla eta, epaiketa interneten bidez emititzea ezinezkoa da; hala ere, organo judizialak baimena ematen badu, epaiketa bukatu eta gero grabaketaren kopiak lortu ahal izanen dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Onkologia Zentroa eraiki eta hornitzeko aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Onkologia Zentroa eraiki eta hornitzeko aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 3ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Onkologia Zentroa eraiki eta hornitzeko aurrekontuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, abenduaren 21eko 1796/2001 Ebazpenaren bidez, azeleragailu linealak esleitu zituen.

Azeleragailuak egin, hornitu eta ordaindu gabe dira; izan ere, teknikoki ezin da holakorik egin horiek kokatuko diren erradioterapia zentroa eraiki arte.

Esleitutako materialaren zenbatekoa, hornitua eta ordaindua izan dena, 416.213 euro izan da, eta 2002ko ekitaldiari (216.151 euro) eta 2003koari (200.062 euro) egotzi zaio.

Proiektua egin eta lanak esleitu eta gero, administrazio prozeduraren arabera, aurtengo urtarrilean erradioterapia zentroa eraikitzen hasi da

Obrak hasi ahal izateko mojak eta sindikatuak lekuz aldatu behar izan dira, Nafarroako Ospitaleko M-6 eraikeraren eta pabilioi urdinera, hurrenez hurren. Hori dela eta, leku horiek eraberritzeko eta egokitzeko beharrezkoak izan diren proiektu arkitonikoak eta obrak egin dira.

2004an, onkologia planaren obrak izeneko kontusailaren zenbatekoa aldatu eta honetarako erabili zen:

Nafarroako Ospitalea eraberritzeko lanak	243.000 €
Nafarroako Ospitaleko obra txikiak	185.000 €
Nafarroako Ospitaleko ekipamendu medikoa	25.000 €
Nafarroako Ospitaleko beste lan batzuk	400.000 €
Osasun Publikoaren Institutuko botikak	886.138 €
Farmazia prestazioa	38.419 €

Ekipamendu onkologikoa izeneko kontusailaren zenbatekoa aldatu eta honetarako erabili zen:

Nafarroako Ospitaleko ekipamendu medikoa	70.000 €
Nafarroako Ospitaleko beste altzari batzuk	305.000 €

2005eko aurrekontua, onkologia planaren obrak izeneko kontusailaren ezarri zen; kontusail hori aldatu eta aurrekontua honela banatu zen:

Nafarroako Ospitalea eraberritzeko lanak	229.700 €
Nafarroako Ospitaleko obra txikiak	353.910 €
Nafarroako Ospitaleko altzariak	18.000 €
Nafarroako Ospitaleko ekipamendu medikoa	4.000 €
Tuterako Ospitalea eraberritzeko lanak	260.375 €
Osasun etxeetako lanak	218.922 €
Anbulatorioak eraberritzeko lanak	7.206 €

Nafarroako plan onkologikoaren 57. eta 58. orri-erakundeak erantsi ditugu, ezagutzen duzun XIII. puntua-kronogramari dagozkionak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentroetan geriatrak jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak oinarrizko osasun laguntzako zentroetan geriatrak jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du oinarrizko laguntza zentroetan geriatrak jartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

2005eko azaroaren 28an Gizarte Ongizate kontseilariaren idazki bat jaso genuen, eta idazkian, 2005eko azaroaren 7an Nafarroako Adinekoen Kontseiluak hartutako bi erabakiren berri eman ziguten. Erabaki horretan, Osasun kontseilariari oinarrizko laguntza zentroetan geriatren kopurua handitzeko aukera azter zezan eskatzen zioten.

2006ko martxoaren 31n Osasun Departamentuak horri buruz duen iritzia parlamentari horri bidali genion.

Aipatu idazkian honakoa jakinarazi genion: famili mediku baten (lau urte irauten duen espezialitatea) eskumenen artean adinekoei laguntzea da, eta eskumen hori gehien garatzen denetako bat da, hala prestakuntzan nola eguneroko praktikan. Hori dela eta, oinarrizko osasun laguntzako medikuek adinekoei osasun etxeetan ematen dieten arreta kalitate bikainekoa dela uste dugu, eta hori herritarren gogobetetze-maila altuak egiaztatzen du.

Azkenik, geriatría Espainian, herri garatu guztietan bezala, ospitaleko espezialitatea dela esan behar dugu; beraz, geriatrak ez dira oinarrizko osasun laguntzako taldeetako partaide eta ez dute bere lana osasun etxeetan gauzatu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako diruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako diruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Osasun kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako dirua zenbat den eta zertan erabili den jakiteko. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun eta Kontsumo Ministerioak kapital transferentzien bidez emandako zenbatekoa 56.632,35 eurokoa da, eta 2005eko ekitaldiko dirusarreraren aurrekontuko "Estatuko administra-

zioaren kapital transferentziak” izeneko 540000-52000-7000-0000 kontusailari egotzi zaio.

Aipatu zenbatekoa, Finantziario eta Aurrekontu Politikako zuzendari nagusiaren otsailaren 14ko 13/2005 Ebazpenaren bidez, 2005eko ekitaldiko gastuen aurrekontuko “Teknologiako ibilgetu ez-materiala” izeneko 540000-52000-6090-312800 kontusailera sartu zen

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du osasungintza finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emandako dirua zenbat den eta zertan erabili den jakiteko. Hona Ekonomia eta Ogasuna kontseilariaren erantzuna:

- Zenbat diru jaso da guztira Estatuko administrazioak eginiko kapital transferentzien bitartez, osasuna finantzatzeko funtsetik Osasun Ministerioak emaniko dirulaguntzari esker hain zuzen?

Batere ez. Nafarroako Gobernuak osasun arloko gastua 17 milioi eurekin handitzea erabaki

zuen; handitze hori finantzatzea posible izan zen nafarrek ordaindutako zergetatik ateratako dirusarrerak handiagotu zirelako eta Nafarroako Gobernuak beste gastu batzuen kaltetan osasun arloko gastuari lehentasuna eman ziolako.

- Kontuan izanda osasuna finantzatzeko estatuko funtsetik heldu den ekarpena, zein erabilera eta xede eman zaizkie funts horiei?

Ekarpena ez da osasuna finantzatzeko funtsetik heldu. 56.632,35 euroko dirusarrerara Osasun Ministerioak 2004an emandako dirulaguntza bat da, 2005ean kobratu zena. Dirulaguntza horren helburua honakoa zen: autonomia erkidegoek, osasun arloko kohesio-funtsaren informazio sistema ezartzeko, beren sistema informatikoak ministerioaren eskakizun teknologikoen arabera egokitzeko egin behar zituzten doikuntza eta garapenengatik ordaina izan zezatela.

Dirusarrerara handiago horri esker “Teknologiako ibilgetu ez-materiala” izeneko kontusailean kreditua sortu zen; kontusail horri, besteak beste, aplikazio informatikoetan egindako gastuak egozten zaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	